

# Goienkaria

2010eko martxoaren 18a > Eguena > X. urtea > 414. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM

"Loiolako mahaitik kanpoko faktoreek eragin zuten akordioa ez lortzea"

Imanol Murua Uria  
Kazetaria > 06



**G2a**

Hamlet taldearen kontzertua etzi, 3 aretoan > 21

**ARRASATE**

Eraikin zaharrak bota eta berria eraiki nahi dute Zalduspen > 10

**BERGARA**

Erramu-zapatuko bazkarirako 500 txartel jarri dituzte salgai > 12

**ANTZUOLA**

Berdintasunerako lehenengo plana dagoeneko martxan dago > 17

**AISIALDIA** > UME ETA GAZTETXOAK

## Udalekuak batera antolatu dituzte hiru euskara elkartek

**ELKARTEAK** Arrasateko

Txatxilipurdi, Bergarako Jardun eta Aretxabaletako Loramendi dira antolatzaileak

**KANPOAN** Bi udaleku prestatu

dituzte: Getarian egonaldia uztailan eta Euskal Herrian barrena udaleku ibiltaria

**LANKIDETZA** Batera dihardute

lehendik ere elkarteok, baina honakoak dira hirurok egiten dituzten lehen udalekuak > 02-03

**JENDARTEA** > AISIALDIA

## Turismo eskaintza zubirako

Bailarako turismo bulegoek eskaintza berezia egingo dute, bisita gidatuen bitartez > 05

### Bergarako Lau t'erdiko txapelketako finalak, GOITBn

Martitzenean Soraluze Koop. sariko finalerdiak jokatu ziren Bergarako Udal Pilotalekuan. Onsalo eta Yoldi gailendu ziren eta, ondorioz, haiek jokatuko dute finala datorren martitzenean, hilaren 23an, pilotaleku berean. Partidu horren aurretik Larrañaga eta Mendizabal antzuolarra ere lehiatuko dira hirugarren postuagatik.

Partiduok Goiena Telebistan ikusteko aukera dago. Martitzeneko finalerdietako partiduak gaur, eguena (18:00), eskainiko ditu; hilaren 23ko finalak, berri, hilaren 24an (22:15). > 20



GRABATZEN Martitzeneko jaialdian, GOITBko langileak Larrañagaren eta Yoldiren arteko norgehiagokan lanean.

XABIER URTZELAI

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05  
Elkarrizketa > 06  
Iritzia > 08  
Gutunak > 08  
Herriak > 09-19  
Kirola > 20  
Kultura > 22  
Gazteak > 25  
Sailkatuak > 26-27  
Telebista-Irratia > 28  
Zerbitzuak > 28  
Berri-zakua > 29  
Eskelak > 29  
Non-zer > 30-31

**POLITIKA** > MOBILIZAZIOAK

## Bilkurak gaur Jon Antzagatik

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deitu ditu Arrasaten eta Bergaran, bestek beste > 05

**JENDARTEA** > GARRAIOA

## Bus azkarraz eztabaidatu nahi dute

Bailaran Bus Rapid Transit (BRT) sistema ezartzeko aurreproiektua egiten dihardu Aldundiak. Ikerketa osatzeko eztabaida taldeak sortu nahi dituzte eta horretarako herritarrei deialdia egiten diete. > 04

**Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak**



**IKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

**FAGOR**

Abantailaz  
betetako kluba!

Goiena  
kluba

## MARTXOKO ZOKETA

Telefonoa: 943 25 05 05  
e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
Kuota: 45 euro



### DANBAKAKO HIRU DISKA

Bidali KLUBA DANBAKA  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.

DANBAKA))))))



### UMEENTZAKO LIBURUAK

Bidali KLUBA LIBURUAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



### SASKIBALOIRAKO SARRERAK

Bidali KLUBA SARRERAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



### EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA

Bidali KLUBA PENDRIVE  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



## SARI NAGUSIA URTARRILA-MARTXOA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

### JOCCA RACLETTE



- Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
- Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

AISIALDIA > UME ETA GAZTETXOAK

# Hiru elkartek bat egin dute udalekuak antolatzeke

**LEHENENGO ALDIZ** Txatxilipurdik, Jardunek eta Loramendik lehenengo urtez gertatu dituzte hirurok batera uztailako udaleku itxiak

**BI AUKERA** Getariako aterpetxe baten egonaldia eta udaleku ibiltari bat, horiek dira antolatu dituzten udaleku modalitateak

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Beste hainbat arlotan egin duten moduan, Debagoieneko hiru euskara elkarte handienek –Arrasatekoak, Bergarakoak eta Aretxabaletakoak– indarrak batu dituzte aurten, lehenengo aldiz, udalekuak batera antolatzeke. *Udako abenturak* izenarekin, bi udaleku itxi –bailaratik kanpoko lekuetan egonaldia–, antolatu dituzte uztailerako, adin multzo desberdinetarako, eta izenematea ireki dute. Leku kopuru mugatua ezarri dute, eta izena emateko aukera maiatzaren 7ra arte dago zabalik.

Udalekuon berri eman zuten joan den martitzenean Bergaran Arrasateko Txatxilipurdiko Mirari Arando eta Lander Juaristik, Bergarako Jardunek Saioa Garitanok eta Aretxabaletako Loramendiko Beñat Zamaalloak.

Udalekuak hauek dira: bate-tik, 10 eta 12 urte artean dituzten umeendako (1998an edo 1999an jaioak), Askizun (Getaria) egonaldia eta ekintzak. Hiru txanda antolatu dituzte: uztailaren 1etik 8ra, uztailaren 8tik 15era, eta uztailaren 15etik 22ra. Hor, 25 bat lagunendako lekua dago, eta 250 euroko prezioa du. Txatxilipurdiko Haur saileko arduradun Mirari Arandok eman zuen horren berri, eta azaldu zuen elkarteok lehendik ezagutzen zutela Askizu.

Bestetik, azken urteotan Arrasateko eta Bergarako aisialdi elkarteok batera antolatu izan duten Kosta ala Kosta izeneko abenturazko bidaia eta udalekua dago aukeran, aurten Loramendik ere parte hartuta hori antolatzen. Araban hasi eta Gipuzkoako kostaldean amaituko den udaleku ibiltaria da. 14 eta 16 urte artekoek (1994an edo 1995an jaio-takoek) parte har dezakete, herri bakoitzeko 10 bat lagun, eta prezioa 275 eurokoa da. Bergarako

**Getarian astebete pasatzeko aukera dute 10-12 urte artekoek, eta Kosta ala Kosta ibilaldia egitekoa 14-16 urte artekoek**

**Euskara elkarten udalekuez gain, urtero moduan, diputazioak, udalek eta ikastetxe batzuek antolatzen dituzten udaleku irekiak izango dsira**

Jardun elkarteko Haur eta Gazte saileko arduradun Saioa Garitanok aurkeztu zuen eskaintza hori. Gaineratu zuen "hiru herrietako begiraleak" izango direla gaztetxoekin, "abentura kutsua" dutela udaleku horiek, eta "leku desberdinetan egon eta lo egiten" dela bertan. "Oso udaleku polita da", esanez egin zuen izena emateko gomendioa.

**"ESPERIENTZIA GURE INDARRA DA"**

Aspalditik dator Debagoieneko euskara elkarten arteko lankidetzeta, eta aurten, beste pauso bat haratago joateko moduan ikusi dute euren burua; alegia, eskualdean lehenengo aldiz udalekuak antolatu dituzte elkarrekin. Txatxilipurdi aisialdi elkarteko Lander Juaristik honela esan zuen: "Aisialdian esperientzia dugu hiru elkarteok, eta hori gure indar bat da". Esperientzia

horren datuak eman zituen: hala, gogorarazi zuen Jardunek 15 urte daramatzala Bergaran aisialdian lanean; "astero, 9 eta 12 urte artekoendako Txapligu aisialdi taldea eramaten du, eta azken hiru urteotan Txatxilipurdirekin batera Kosta ala Kosta antolatu izan du", esan zuen Juaristik.

Aretxabaletako Loramendi elkartearen gainean, nabarmendu zuen herri horretako gazterien diagnostia egiten diharduela, eta bestalde, herriko ludoteka zerbitzua kudeatzen duela.

Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi elkartearen denetan beterranoena: Juaristik gogora ekarri zuen moduan, 22 urte daramatza "aisialdi hezitzailea euskaraz lantzen", horretan hamaika ekintza eginez.

Esperientzia horri "ilusioa" gehitzen diotela esan zuten ordezkariok, eta Lander Juaristik bi arrazoi eman zituen: "Beharrezkoa ikusten genuen euskara elkarten arteko elkarlanari forma ematea, eta oraingoan udalekuak dira horri forma emateko modua; eta, beste alde batetik, gaztetxoek eskatzen ziguten zerbait zen herri desberdinetako gaztetxoekin arteko nahasketa, eta baita herri bateko ikastetxe desberdinetako arteko ere: elkar ezagutzeko aukera, alegia".

**HIRU EGUN ORDAINTEZKO**

Izena emateko modua dago Txatxilipurdiren egoitzan (Nafarroa Etorbidea, 23, Arrasate; 943 79 54 46 da euren telefonoa), Jardunen bulegoan (Bergarako kultura etxea; 943 76 36 61 da euren zenbakia) eta Atxagazte gaztelekuan (Santa Kurtz, 20; 943 77 09 70 da euren telefonoa).

Izena eman eta gero, hiru egun emango dituzte kuota ordaintzeko. Hiru egunetara, elkarteak kuotaren ziurtagiria eta ume edo gaztetxoaren datuak dituen ipiniko du haren ize-



Beñat Zamalloa (Loramendi), Mirari Arando (Txatxilipurdi), Saioa Garitano (Jardun) eta Lander Juaristi (Txatxilipurdi), udalekuen esku-orriak erakusten. LEIRE KORTABARRIA

**HERRIAN ERE BAI**

Herritik irten gabe, uztaileko egunetan ondo pasatzeko aukera izango dute aurten ere Debagoien osoko ume eta gaztetxoek, udalek antolatzen dituzten udalekuetan. Oraindik horiek antolatzeko goiz da, baina Aste Santuaren ostean ekingo diote horri Debagoieneko udalek. Ludoteka duten herrietan, ludoteka zerbitzua ematen duen enpresak kudeatzen ditu normalean udalekuok; adibidez, Arrasaten, Txatxilipurdik berak; Bergaran, Xipizarok; Oñatin, Txaloka ludotekak... baina Udalaren zerbitzua izaten da. Horrez gain, zenbait herritan, ikastetxeen laguntza izaten dute: hala, adibidez, Arrasateko Herri Eskolak zaintza eta jangela zerbitzua ematen du udalekuetan dabilzan umeendako, 08:00etan hasita, eta Aretxabaletako Kurtebarri eskolak ere ordutegi zabala ematen du, udalekuetan dabilzan 4 urtetik aurrerako umeendako eta haien gurasoendako zerbitzu osagarri gisa.

Zenbait ikastetxe ere euren kabuz antolatzen dituzte ekintza batzuk. Hala, Ikastolen Elkarteak udaleku irekiak (3-5 urte artekoendako), Enjoy English ingelesezko udaleku irekiak (5-12 urte artekoendako) eta atzerrian egonaldiak (13-17 urte artekoendako) antolatu ditu aurten ere. Beste ikastetxe batzuek ere ingelesezko udaleku irekiak dituzte: hori da Oñatiko Elkar Hezi Ikastetxearen kasua. Ikastetxe horrek zaintza zerbitzua ere ematen die 2 eta 3 urtekoiei.

na zerrendan. Bestalde, leku guztiak hartuta daudenean jende gehiagok izena ematen badu, itxoite-zerrenda bat sortuko da, egunaren eta orduaren arabera. Horrez gain, izenemate epea bukatu eta gero ekainaren 4ra bitartean norbaitek zerrenda uztea erabakitzen badu, matriku-

laren %80 bueltatuko diote; ekainaren 4a eta gero, ez da dirurik bueltatuko. Azkenean joango diren ume eta gaztetxoek gurasoendako batzarrak ere antolatu dituzte elkarrekin, eta horietara joateko gomendatzen diete aita-amei. Honakoak dira: ekainaren 15ean,

Bergarako kultura etxean; hila- ren 16an, Arrasateko kultura etxean, Kulturaten; eta 17an, Aretxabaletako udalbatza- rean. Esku-orri batzuk prestatu dituzte elkarrekin, eta horietako bakoitzak dauka izenemate orri bat. Orri hori beteta eta ordainketari dagokion agiri jus-

tifikatzailea eraman behar dizkio norberak dagokion euskara elkarterari. Ordainketari dagokionez, kontuan hartzeko batzuk daude: hala, elkarteko bazkide edo familia ugariako kide izanez gero, %5eko deskontua izango du norberak, hori adierazten duen ziurtagiria ere aurkeztuta.

LABUR

**Getarian egonaldia edo Arabatik Gipuzkoara ibilaldia**

Antolatzaileen hitzak erabilita, "bailarako gazte jator eta martxosoenen bilgune" izateko gogoarekin jaio dira Txatxilipurdik, Jardunek eta Loramendik prestatutako udalekuok. Bi dira, eta biok ezagutzen dituzte euskara elkarteok.

Getarian, astebeteko egonaldiak antolatu dituzte 10 eta 12 urte artekoendako, 1998. edo 1999. urtean jaiotakoendako. Askizu udal aterpetxean egongo dira begiraleekin batera. Leku ezin hobean dago Askizu: mendi gainean, baina itsasora begira. Hiru txanda antolatu dituzte, 25 lagunendako moduko egonaldiak: uztailaren 1etik 8ra, 8tik 15era, edo 15etik 22ra. Prezioa da 250 euro.

**EUSKAL HERRIKO TXOKO EDERRAK**

Kosta ala Kosta delakoa ibilbide ezaguna da ere bailarako euskara elkarteendako, Txatxilipurdik eta Jardunek parte hartu izan dutelako, Euskal Herriko beste aisialdi elkarte batzuek gain. Izenak dioen



Kosta ala Kosta izeneko udaleku ibiltaria. JARDUN

moduan, euskal kostaldea ezagutzen dute, baina baita barrualdea ere. Hala, aurten Araban hasi eta Gipuzkoako kostaldean amaituko da udaleku ibiltari hori, eta 1994. edo 1995. urtean jaiotakoiei zuzenduta dago. 275 euro da horren prezioa.

**MARTXOAREN 26RA ARTE**

Euskara elkarteek antolatu izan dituzte azkenaldian Debagoienean egiten diren udaleku itxi bakarrak; izan ere, gero eta indar handiagoa hartzen joan da udaleku irekien eredua. Edozelan ere, urtero-urtero antolatzen ditu Foru Aldundiak udaleku itxiak, Hego Euskal Herriko hainbat lekutan egonaldiak, aisialdia eta bizikidetzat lantzeko, eta aurtengo udalekuendako deialdia egin du. Martxoaren 26ra arte dago horietan izena emateko parada. 7 eta 13 urte arteko umei dago zuzenduta, eta izena ematen duten guztien artean zozketa egiten du Aldundiak. Informazio gehiago eska daiteke edo izena eman daiteke 943 55 59 80 telefonora deituta edo [www.gipuzkoa.net/oporraldi](http://www.gipuzkoa.net/oporraldi) webgunean.

ESANAK

**"Hiru herriotako begiraleak izango dira eta abentura kutsua izango du Kosta ala Kosta udalekuak; oso polita izango da"**

Saioa Garitano > Antolatzailea

**"Beharrezkoa ikusten genuen euskara elkarteon arteko lanari forma ematea, eta udalekuak dira horretarako modua"**

Lander Juaristi > Antolatzailea

**LORAMENDI INTERSPORT®**  
**Eski-snow astea**  
 Snow taulak, eski ekipoak, botak, kaskoak, betaurrekoak...  
**%40**  
 martxoaren 20tik 27ra.

**H\*\*\* arantzazu**  
 arantzazuko santutegia hotela

**KUDEATZAILE BERRIAK**  
 Bazkari eta ospakizun berezietarako zure lekua

943 78 13 13

Arantzazuko auzoa 8 | OÑATI  
[www.hotelsantuariodearantzazu.com](http://www.hotelsantuariodearantzazu.com)

JENDARTEA &gt; GARRAIOA

# Eztabaida taldeak sortu nahi dituzte bus azkarraren gainean

Garraio publikoak edo pribatuak erabiltzen dituzten herritarrak gonbidatu gura ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak

MIREIA BIKUÑA &gt; ARETXABALETA

Debagoiena eta Debabarrena eskualdeetan Bus Rapid Transit (BRT) sistema ezartzeko aurreproiektua egiten dihardu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ikerketa osatzeko eztabaida taldeak sortu nahi dituzte martxo bukaeran. Horren harira, herritarrei deialdi zabala egin nahi diete.

Eztabaida taldeetan parte hartzeko interesa duten herritarrek 943 00 35 85 telefonora dei dezakete, edo [info@farapi.com](mailto:info@farapi.com) helbidera mezua idatz dezakete izena emateko edo informazioa eskatzeko. Farapi SL enpresa izango da taldeok osatuko dituen.

PARTE-HARTZAILEEN BALDINTZAK

Eztabaida taldeetan parte hartu gura dutenek garraio publikoa edo pribatua erabili behar dute. Gainera, norberak garraioarekin duen esperientziaren gainean egin beharko du berba. Talde horietan jasotzen den informazio guztia Debagoiena eta Debabarrena eskualdeetako garraio sistema hobetzeko erabiliko du Foru Aldundiak.

IKERKETARI BURUZKO BILERA

Bus azkarraren gaineko ikerketaren nondik norakoak azaltzeko bilera egin zuten martxoaren 10ean Aldundian Debagoieneko eta Debabarreneneko alkateak eta beste hainbat eragilek. Bileran egon ziren ikerketa egiten diharduten Buchanan Consultores enpresako bi kide, eta ikerketa zein puntutan dagoen azaldu zuten. "Autobus azkarraren ezaggarri teknikoak zeintzuk diren azaldu ziguten. Bestalde, ikerketaren faseak zeintzuk diren esan ziguten. Une honetan, egungo

egoeraren diagnosis egiten dihardute", esan digu Aretxabaletako alkate Inazio Garrok. Era berean, bus azkarraren finantzazioa eta kudeaketa nola egin daitekeen eta bus azkarrak ingurumenean sortuko lituzkeen ondorioak azaldu zizkieten.

Aldundian egindako bilera "informatiboa" izan zela esan digu Aretxabaletako alkateak. "Ikerketa nola dagoen kontatu ziguten, besterik ez. Hilabete barru bilduko gara berriro ere, aurrerapausoak ezagutzeko".

ESANAK

**"Ikerketa nola dagoen kontatu ziguten Aldundian, besterik ez; hilabete barru berriz batzartuko gara"**

Inazio Garro

&gt; Aretxabaletako alkatea

JENDARTEA &gt; ERRETIRATUAK

## Jose Riviere, Gipuzkoako erretiratuen elkarteko presidente izateko hautagaia

Hilaren 23an egingo dute aukeraketa Donostiako ohiko batzarrean


M.B. &gt; ARRASATE

Arrasateko Abaroa elkarteko presidente Jose Riviere Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteko presidentetza izateko hautagaia da.

Martitzenean, hilaren 23an, egingo dute aukeraketa Donostiako egoitzan. Ohiko batzarrean lau urterako presidente berria aukeratu dute eta kargua hartzen duenak aukeratu dituzte batzarreko 11 kideak.

BAILARAKO ELKARTEEN BABESA

Jose Riviere Arrasateko Abaroa elkarteko eta bailarako erretiratuen elkarteko presidentea da. Gogo handiz aurkeztu du bere burua, bailarako elkarten babesarekin; eta oso garbi dauka zer egingo duen kargurako aukeratzeko badute: "Hirugarren adinekoen eskubideak aldarrikatu eta defendatu behar ditugu. Administrazioarekin hartu-eman zuzena eduki behar dugu. Erakundeek antolatzen dituzten foroetan eta eztabaida taldeetan parte hartu behar



Jose Riviere.

GOIENKARIA

dugu, gure esperientzia kontatzeko". Horren alde egingo luke lan hurrengo lau urteetan. Era berean, esan digu nahiko lotuta dituela berarekin zuzendaritza batzarrean egongo liratekeen pertsonak.

HAINBAT EKITALDI

Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtero, bazkide diren erretiratuen elkarteendako; besteak beste, kultur eta kirol ekitaldiak, mahai-joko txapelketak eta gastronomia lehiaketa.

## ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA

09:00 - 14:00

# HILEKO 3. ZAPATUAN

martxoak 20  
apirilak 17  
maiatzak 15  
ekainak 19  
uztailak 17  
irailak 18  
urriak 16  
azaroak 20



Argazkia: Martin Díez Zuruluz

Antolatzailea:  **ARRASATEKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Laguntzailea:  **ibai-arte**  
Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.

GIZARTEA > ZAINZA ESPEZIALIZATUA

# Aldundiari eskatu diote Aixola segurua izatea bermatzeko

Elgeta, Eibar eta Ermuko udalek zentroaren kokapenaren gaineko gogoeta ere eskatu dute



Aixolako zaintza espezializaturako zentroa.

GOIENKARIA

JOKIN BEREZIARTUA > ELGETA

Joan den egubakoitzeko *matxinda*-ren ondoren, Elgetako alkate Oxel Erostarbek, Eibarko alkateak, Ermuko Gizarte Zerbitzueta-ko zinegotziak eta Jose Inazio Intsausti Aldundiko Gazteria Saileko zuzendariak bilera egin zuten astelehenean. Aixola inguruan dauden hiru udalerrietako ordezkariak zentroaren kokapenaren gainean hausnarketa egitea eta haren gaineko kezka adierazi zio-

ten Intsaustiri. Hala, Aixolaren eta inguruaren segurtasuna bermatzeko neurriak hartzeko eskatu zioten. Bestalde, Arartekoari ere eskatu zioten adin txikikoen zentroaren jarraipena egiteko.

## 'ERABAKI POLITIKOA'

Oxel Erostarbek adierazi duenez, Aixola zabaltzea "erabaki politikoa" da: "EAJ eta Hamaikabatek zabaltu dute zentroa eta euren ardura da orain behar den modu-

ko kudeaketa egin eta egubakoitzekoa berriro ez gertatzeko neurriak hartzea". Hala ere, Erostarbek gaineratu du Elgetako Udala elkarlana bultzatzen ahaleginduko dela; hala, alde ezberdinen arteko koordinazio mahaia "pau-so egokia" dela uste du.

ESANAK

## "Hamaikabaten eta EAJren ardura da orain zentroa kudeatzea"

Oxel Erastorbe > Elgetako alkatea

> POLITIKA

## "Jon Anzaren aurkako gerra zikina" salatzeko hainbat mobilizazio

Amnistiaren aldeko mugimenduak deituta, mobilizazio eguna izango da gaur, "Jon Anzaren aurkako gerra zikina" salatzeko. Bailaran, LAB sindikatuak deituta, kontzentrazioak egingo dira Arrasaten eta Bergaran, 12:00etan. Lantegi eta ikastetxeetan ere egingo dira bilkurak. Iluntzean, berriz, manifestazioak egingo dira: Bergaran, 19:30ean, San Martin plazatik abituta; Arrasaten 19:00etan abiatuko da, Herriko plazatik.

> IKASTAROAK

## Gomiztegiko Artzain Eskolan, formazio ikastaroak

Itsasmendikoi sozietate publikoak hainbat ikastaro eskainiko ditu datozen hilabeteetan, eta Gomiztegiko Artzain Eskolan, zehazki, hiru ikastaro emango dituzte: gazta egitea -martxoaren 22tik 26ra-, artzain txakurrak trebatzea -apirilaren 17tik maiatzaren 16ra- eta ardiaren ilea mozteko teknika -ekainaren 18an eta 19an-. Artzainek eta interesa duen edozeinek har dezakete parte.

TURISMOA > ZUBIRAKO ESKAINTZAK

# Debagoiena erakutsi, ondare historikoarekin

J.B. > BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak martxoko zubia aprobetxatuko du kanpokoei gure ibarra ezagutzera emateko. Hala, Bergarako, Eskoriatzako, Gatz-

gako eta Oñatiko udalekin batera bisita gidatuak eskainiko dizkie gure ibarra ezagutzen ez dutenei. Bada, bailarako ondarea da nagusi Mankomunitateak prestatu duen eskaintza berezian.

## BISITA GIDATUAK

Bisita gidatuen bidez, martxoaren 19, 20 eta 21erako eskaintza berezia egin dute. Haiek dira egunotan bisitatu ahalko diren lekuak: Bergarako erdigune his-

torikoa, Gatzagako gatz museoa eta Oñatiko unibertsitatea, San Migel parrokia, Arantzazuko santutegia eta Arrikruzteko kobak. Eskoriatzako Ibarrundi museoa itxita egongo da hiru egunotan, baina urte osoan aurrez eskatuta egin ahal izango dira bisita gidatuak. Bisiten ordutegiak jakiteko eta informazio gehiagorako deitu 943 79 64 63 zenbakira.



errebelatu digitala-momentuko kopiak-karnetak-ekontza gonbidapenak-lan industrialak-errebelatu profesionala-posterrak-material fotografikoaren salmenta-book-ak-enmarkazio propioa - [kb@kbphotoestudio.com](mailto:kb@kbphotoestudio.com)

Bloga: [www.kbphotoestudio.wordpress.com](http://www.kbphotoestudio.wordpress.com)

Barrenkale 35, Bergara Tel.: 943 76 24 12



[ kb photoestudioa ]

- ezkontzak - estudioak - jaunartzeak - kaleko erreportaiak -

**kb**  
photoestudio



Esangura eta jakingura handia sortu du Imanol Murua Uria *Berria*-ko kazetariak argitaratu

berri duen *Loiolako hegiak* libururak. 2006ko su-etenean, Loiolako basilikan, EAJ, PSE-EE eta

Batasuneko buruek egin zuten negoziazio prozesuaren berri ematen du. Orain arte kontaktu

bako datuak eta anekdota bitxiak jaso ditu. Negoziazioaren porrotaren gakoak ere jaso ditu.

Imanol Murua Uria > Kazetaria

# "Loiolako mahaitik kanpoko faktoreek eragin zuten akordioa ez lortzea"

ENEO AZKARATE > ARRASATE

Imanol Murua Uria (Zarautz, 1966) dio Loiolako azken negoziazio saiakera hartan jarrita zituen itxaropenek eta ondorengo porrotak eroan zutela liburua idaztera. "Zer gertatu ote da? Horren gertu egonda, zergatik ez da posible izan?"

## Zer kontaktatu duzu liburuan?

Liburuaren mami nagusia da 2006ko udazkenean Loiolako basilikan hiru alderdik, EAJk, PSE-EEk eta Batasunak, egin zuten negoziazio politikoa. Hiru elkarriketa luze egin ditut Jesus Egigurenekin, Arnaldo Otegiarekin eta Iñigo Urkullurekin. Baina 2001ean, Elgoibarko Txillarre baserrian, Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurenek hasi zituzten elkarrizketak ere kontaktatu ditut eta baita Loiolako hautsi ondoren, Barajasko atentatuaren ostean, Suitzan izan zen negoziazio ahalegina ere.

## Zerk eroan zintuen liburua idaztera?

Neukan informazioaren eta egiten nuen analisiaren arabera, Loiolako azkeneko saiakera hura aterako zela uste nuen. Horregatik, pikutara joan zenean, apur bat harrituta geratu nintzen. "Zer gertatu ote da? Horren gertu egonda, zergatik ez da posible izan?". Hori argitzeko motibazioa banuen eta, bestalde, *Berria*-n egin nituen harremanengatik eta, liburu hori egiteko aukera baneukala uste nuen. Solaskideengana iristeko aukera baneukan. Bestalde, oraindik argitu gabe zeuden hainbat kontu euskaraz kontaktu nahi nituen. Funtszkoa izan zen hiru aldeek baiezkota ematea.

## Noiz izan ziren ezkutuko solasaldiak Loiolako basilikan?

Lehenengo izan zen 2006ko irailaren 20an. Eta handik hasita, 12 bilera egin zituzten azaroaren 15a bitartean. Lehenengo bederatzi bileretan aurrera egin zuten, akordioa lortzeko asko aurreratu zuten. Urriaren 31n, bederatzigarren bileran, akordio zirraborro bat idatzi zuten eta astebeteko epea utzi zuten zirraborro hori berresteko, eta azaroaren 8an, akordioa sinatzeko eguna izan behar zuten hartan, Batasunak aldaketa batzuk proposatu zituen, PSE-EEk kontraproposamenak egin zituen eta dena pikutara joan zen. Lurraldetasunaren inguruan sortu ziren desadostasunak.

## *El Correo*-k argitaratu zuen albiste bat esaten negoziatzen ari zirela Elizondon, ezta?

Bai, horixe da liburuan kontaktatu dudana anekdota bat eta Otegiarekin kontaktatzea asko gustatzen zaiona. Bigarren negoziazio egunaren ostean, *El Correo*-k atera zuen hiru alderdietako zuzendaritzak bilduta egon zirela egun haietan Elizondon. Otegiaren interpretazioa da entzuketaren bitartez jakin zutela zerbitzu sekretuek bazebiltzala elizaren ondoan, eta hortik uste izan zutela Elizondon bildu zirela. Otegiarekin kontaktatu du, brometan, Aresen ez zekiela Elizondon non zegoen ere eta nola konponduko ote zuten lurraldetasunaren auzia Elizondon non dagoen ez dakien batekin.

## 2006ko azaroaren 8an akordioa oso gertu egon zen? Zerk eragin zuen hutsa?

Nire konklusioa da han mahaian jarrita zeuden guztiak ados zeudela akordio zirraborroarekin. Baina, batetik, Batasunak eroan zuenean akordio zirraborroa berresteko ezker abertzaleko erabakiguneetara, ez zuten lortu eta orduan aldaketa batzuk etorri ziren. Bestalde, akordioa berretsi izan balute, zalantzan jartzekoa da Madrilek hura onartuko ote zuten. Loiolako mahaitik kanpoko faktore gehiegik eragin zuten akordioa ez lortzea.

## Zer zeukaten hitzartuta azken batzarra egin aurretik hiru aldeek?

Batetik, erabaki eskubidearen kontzeptuaren gainean, euskal herritarrek etorkizun politikoa ze mekanismorekin erabaki behar zuten. Sozialisten baldintza zen gaur egungo legeriak baimentzen dituen bitartez egitea. Bestalde, lurraldetasunaren puntuan, iritsi ziren Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko organo komun instituzionala eratzeraino, atribuzio exekutibo eta legegileekin.

## Zer eskatu zuen Batasunak?

Organo komun instituzional horrek, behin eratu ondoren, landu beharko lukeela lau herrialdeetarako estatu politikoa eta hiru alderdiek konpromisoa hartu beharko luketela hori bultzatzeko, eta, azkenean, erreferendumean herritarrek erabakitzeak. PSE-EEk esan zuen onartezina dela batez ere PSNri eskatzea hori babestea. EAJk bat egin zuen PSE-EEekin puntu horretan.



Imanol Murua Uria, *Loiolako hegiak* liburuaren egilea.

ENEO AZKARATE

USTEAK USTEL

**"Nuen informazioagatik, uste nuen Loiolako azkeneko saiakera hura aterako zela"**

EAJ ETA MADRIL

**"Egigurenek dio Madrilen Imazi kasu handiagoa egiten ziotela berari baino"**

**EAJk eta sozialistek leporatu zioten Batasunari hitzartutakoa ez errespetatzea eta ETAK betatu izana akordioa.**

Gauza batzuk egiaztatu ditut eta beste batzuk ez. Urkulluk eta Egigurenek diote azken kontraproposamena ETAREN aginduz eroan zutela Batasunekoek. Otegiarekin kontaktatu du zirraborroa ezker abertzalean kontrastatu eta eztabaidatu zutela, hausnarketa egin zutela eta ailegatu zirela ondorio batera; alegia, zehaztasunak eta bermeak behar zituela akordioak. Nire ondorioa da

Batasuna ados zegoela zirraborro horrekin, baina denok dakigu ezker abertzalea Batasuna baino zabalagoa dela. Erabakia zeinek hartu zuen ez dakit.

## Batasunak dio EAJ ezker abertzaletik baino PSOEtik gertuago aritu zela.

Baldintzarik gabeko leialtasun osoa eskaini zion EAJk Zapaterori azkeneko su-etenean. "Lehenengo bakea eta gero politika" irizpidearekin. Loiolan, Otegiarekin leporatu zien jeltzaleei gertuago izan zirela sozialisten posizioetatik Batasunarenetik baino. Urkulluk kontaktatu du saiatu zirela bitartekari lanak egiten bi muturrak gerturatzeko eta, azken unean, erdibideko proposamenak egin zituztela ere kontaktatu du. Otegiarekin dio EAJk ez zituela alderdi abertzale bati zegozkion ikuspuntuak defenditu, bitartekari lanetara mugatu zela. Egigurenek brometan dio Madrilen Imazi kasu handiagoa egiten ziotela berari baino.

## EAJko buru Imaz izan beharrean Egibar izan balitz, berdin jokatuko zuten EAJk negoziazio mahaian?

Ez, zalantzarik gabe, ezberdin. Pentsa ezazu Urkullu eta Imaz izan beharrean Egibar eta Ibarretxe egon izan balira Loiolan EAJ ordezkatzen. Egibarrek ere errezeloak erakutsi zituen bere garaian Loiolan negoziatzen zebiltzanari buruz. Ez dakigu ze emaitza izango zuten. Beste era batera izango zen, hobeto ala okerrago, ezin jakin.

## Eta ezin jakin azaroaren 8ko hartan akordioa berrestu eta sinatu izan balitz, gaur egun ze egoeratan egongo ginatkeen...

Egigurenek aitortzen du Loiolan hitzartu nahi zuten horrek bazuela Madrileko Gobernuaren oniritzia. Izan ere, Ares oneko zebilen Madrilerara deika. Baina Egigurenek esaten du, era berean, bere ustez Madrilen ez zirela jabetzen onartzera zihoazen horrek gero zer ondorio izango zuten. Kontsulta ere etor zitekeela... Otegiarekin badauka esaldi bat Batasunaren mesfidantza laburbiltzen duena: "Esaten didate Auzitegi Nazionalako epaileak ezin dituztela kontrolatu eta sinistu behar diet Estatuak erabaki eskubidea errespetatu behar duela?".

goiena.net/bideoak

Elkarrizketa osoa, webgunean.



## Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI  
943 78 13 13

### Eskaintza

- 46 logela [www.hotelsantuariodearantzazu.com](http://www.hotelsantuariodearantzazu.com)
- 200 pertsonentzako jangela
- Eguneko menua eta karta
- Familientzako menuak asteburuetan
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak

Egunero zabalik



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 86

### Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

### Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE  
943 53 32 72

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI  
943 78 19 56 [www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik

# Jatetxe Gida



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA  
Tel.: 943 76 10 55

### Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak astewartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas  
Gastronomia 2009 saria.



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE  
943 79 12 50 / 943 77 15 62

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI  
943 78 35 45

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitarakoak
- Hamarretakoak

### Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita



**zabalik**

Diego Martiartu

## Gauzak aurpegira!

Gorabidean datorren jokamoldea da, eta jendartean hagitz ongi ikusia dago, nonbait, gauzak aurpegira esatearena; erreprotxeak, berbazko gaztaiko eta belarri izkinekoak aurrez aurre eta zuzen-zuzenean besteren musura botatzearena. *Gran Hermano*, *Patagoniako konkistatzaile*, *Generación Ni-Ni* (a ze ondo kolatu den hor euskarazko singularreko lehenengo pertsona!) eta halako realityetan, moda-modako bihurtu zaigu nork bereak inolako iragazi barik inoren muturrera jaurtitzeara, horixe omen-eta, zein bere ausardiaren, pieza bateko, potro/titi biko gizon/emakume izatearen eta beste tasun txalogarri batzuen erakusle.

Gure ikastolakumeek agudo irensten dituzten jokamodu, izan-modu eta jardunmoduak denak ere. Eta lautik hirutan, jakina, aurpegiratzen diren horiek gorotzak, bekotzak eta zirinak baino ez dira izan ohi.

Gero eta irriarriagoa begitantzen zait kontuak aurpegiratzeaz harro-harro dagoen hankabikoen arteko gizamultzo hori. Zenbat eta ozenkiago eta kontudentzia erabatekoagoz hitz egin, orduan eta kiratsuagoa da barne erraietatik darien behazuna.

Lagun batek gogoratu eragin zidan nola gauzak muturrera esatea baino indar handiagoa zeukan oraintxe arte "belarri ertze-*ra*" esateak: "Jun hai ta esayok belarri ertzea!". Belarri ertze-*ra* diodanean esan gura dut sailhetsetara, trabes joatea, eta norabide hori hartzeak ez du ezer ikustekorik bizkarra eman orduko kuxkuxean eta jendea larrutzen ibiltzearekin.

Gaur egunean, ale bakanka-bakanka kontatzen ahal da kanporaka inor ziprirtindu barik barne zakarrei eusten dakien jende geroz eta arraroagoa, gorozkiak bere golkorako gordetzen duen jende zuhurra.

**usteak uste**

Arantzazu Ezkibel

## Hezkuntza eredu hiru eleduna

Eusko Jaurlaritzak hezkuntza eredu hiru eleduna jartzeko asmoa azaldu du. Hain zuzen, Isabel Zelaa sailburuak aurkeztu du asmoa, eta helburua etorkizuneko herritarrek euskara, gaztelania eta ingelesa menderatzea dela dio. Asmo ona da, duda barik. Baina benetan eraginkorra izango da? Gaur egun, ikasle guztiek euskara eta gaztelania ikasteko eskubidea dute, eta hori bermatu behar dute erakundeek. Baina, benetan, euskaraz berba egiteko gauza dira herritar guztiak? Euskararen kalterako izango ote ez den...

## Zenbat galdera

Amaia Agirre  
Arrasate

Jon Anza euskal militante politikoaren gorpua agertu ondoren, azken hilabeteetan mahai gainean jarri dugun susmoa baieztatu baino ezin dugu egin. Jonen heriotzaren inguruan ematen ari diren bertsio sinesgaitzek Jonen heriotza gerra zikinarekin lotzera garamatzate, eta desagerpenaren atzean Espainiako eta Frantziako aparatatu errepresiboak daudela ziurtzat jotzen dugu.

Ez dugu sinisten frantziar polizia zabaldu duen bertsioa eta hainbat galdera jarri nahi ditugu mahaiaren gainean:

– Non egon da Jon desager-tua egon den hamaika egune-tan?

– Nork deitu zuen Jon banku batean aurkitu zuela esanez?

– Nork jaso zuen Jon eta ospitalera eraman?

– Non dago Jon zeraman dirua?

– Zein mediku arduratu zen Jonen egoeraz bera ospitalean egon zen bitartean?

– Non daude Jonen inguru-*an* egindako parte medikuak?

– Non dago Jonen hiltze agiria?

– Ospitaleak Jonen heriotzaren berri eman al zien epaile eta polizia? Eta hala egin bazuen zer egin zuten polizia edo epaileek informazio honekin?

– Ikertu al zuten hilda agertu zen gorpua norena izan zitekeen?

– Poliziak bazituen aurrez Jonen ADNak, baita senideenak ere. Gorpuari egin al zizkioten ADN frogak? Zein izan ziren emaitzak?

– Baionatik Tolousera zihonoan pertsona baten desagerpena lau haizetara zabaldu da azken hilabeteetan. Data antzekoetan bidaia horretako tren txartela zeraman pertsona *ezezagun* bat agertu da eta ospitalean hil. Nola da posible orain arte loturarik egin ez izana?

**gutunak**

– Jonen desagerpenaren inguruko ikerketan zehar ez zen bere berri galdetu hiriburu honetako ospitale nagusian? Galdetu bazen, zein izan zen jasotako erantzuna?

– Zergatik familiari konfirmatu aurretik berria komunikabideetan filtratu du poliziak?

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Jonen heriotza gerra zikinak eragin duela salatu nahi du.

– Jon Anzaren hilketan eta ezkutatzean Espainiako eta Frantziako poliziek parte hartu dutela ziurtzat jotzen dugu.

– Jonen gorpua ia urtebetez ezkutaturik mantentzea erabaki politikoa izan dela salatu nahi dugu.

– Jonen hilketaren, desagerpenaren eta ezkutatzearan arduradun nagusiak Rubalca-ba, Zapatero, Alliot Marie eta Sarkozy direla azpimarratu nahi dugu.

– Ardura politikoa argitze-ko eskatzen dugu, eta Jonekin benetan zer gertatu den argitzea Frantziar estatuaren ardura dela esan nahi dugu.

Errepresio estrategiak euskal independentisten aurka jotzen dihardu molde guztiekin, horretarako tortura, espetxe, legez kanporatzea eta bortizkeria poliziala eguneroko erabiltzen dituelarik. Azken hilabeteetan lau militante independentistak salatu dute ustezko polizien eskutik bahituak, galdekatuak eta kolaboratzeko mehatxatuak izan direla. Urtea hasi denetik 21 euskal herritar torturatuak izan dira Ertzaintzaren, Guardia Zibilaren eta Espainiako Polizia Nazionalaren eskuetan.

Hau da egun Euskal Herriak bizi duen egoera, eta testuinguru errepresibo basati honetan soilik ulertu daiteke Jon Anzaren bahiketa eta hilketak.

Gertaera larri hauen aurrean kalera irteteko deia egin nahi dugu Amnistiaren Aldeko Mugimendutik. Horretarako, gaur, osteguna burutuko diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu, herriz herri burutuko diren mobilizazioetan. Arrasaten manifestazioa egingo da, 19:00etan Seberotik.

## Gero arte!

Iñaki Gorosarri Pelaez  
(Arrasateko Udalatzaliak)  
Arrasate

Euskal Herrian jaio/bizi izan garenok, eta herri hau herri gisa maite dugunok, etorkizun hobe batekin egiten dugu amets. Gure ondorengoek herri honetan jaio/bizi izanarekin harro egon daitezten, egiten dugu borroka. Udalatxan magalean jaio/bizi izan garenok, eta gure ingurua maite dugunok, herri hobeago batekin egiten dugu amets.

Gure ondorengoek herri honetan jaio/bizi izateaz harro egon daitezten, egiten dugu lan. Eta zuk ere hori egin duzu, herri hobeago baten alde. Herriak berak daukan garra piztu duzu zure inguruan, herri langile, aske eta alai batean sinisten zenuelako. Eta lan hori hemenean gelditzen da, herrian. Zure hutsunea nabaritu da, baina zuk emanikoa Udalatxan magalean geldituko da.

Gu, denbora jakin baterako gaudela hemen gogorazari diguzu, baina era berean, herriak eta Udalatxek bertan jarraituko dutela ere bai. Horregatik jarraituko dugu lanean, zure/gure ametsak eraikitzen.

Udalatx ikusten dugun bakoitzean zure alaitasuna ikusiko dugu, eta daukaguna hobetzen jarraitu beharra dagoela gogoratuko dugu. Zuk ere horretan sinisten zenuelako.

Eskerririk asko, Joseba, zure herrilana gatik! Laster elkartuko gara Udalatxan magalean; gero arte, Joseba! Besarkadarik tinko eta sentikorrena Joseba-ren familia eta gertukoenei.

## ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENKARIAn, G2-aren azalean (31. orria) *Argizaiola* erakusketaren gaineko erreportajea landu genuen, eta hainbat argazki ageri ziren. Argazki horietako bat gaizki sinatuta zeterren. Josu Garaien *Khotton* argazkia zela jarri genuen, baina Benito Canteroren *Hossegor* zen.

## Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAK  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Siletako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Ziortza Martin, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAK 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

### LAGUNTZAILEAK



Eusko  
Jaurlaritzak



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiko  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioako  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak**  
**diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

Arrasate > 10-11 Bergara > 12-13 Oñati > 14 Aretxabaleta > 15 Eskoriatza > 16 Antzuola > 17 Aramaio > 18 Elgeta > 19 Gatzaga > 19



> **BERGARA**  
Erramu-zapaturako 500 lagunendako bazkaria antolatuta dute > 12



> **OÑATI**  
Udaltzaingo zerbitzu hobetuz berba egin digu Idoia Laspitak > 14



> **ARETXABALETA**  
Xakeko liga bukatuta, ohorezko mailan jarraituko du Arlutzek > 15



> **ANTZUOLA**  
Gizon eta emakumeen arteko berdintasun plana abian da > 17

ARAMAIO > HERRITARRAK

## Errepidearen egoerak sortutako arazoekin etsita daude aramaioarrak

### MOZTUTA

Lur-jausia gertatu zen urtarrilaren 30ean, eta ordutik moztuta dago A-2620 errepidea

### HASERRE

Bizilagunak, Aramaiora lanera doazenak eta merkatariak "haserre eta nekatuta" daude

MIREIA BIKUÑA > ARAMAIO

"Etsita, haserre, nekatuta eta nazkatuta" daudela diote aramaioarrek, lur-jausiak kaltetutako errepidearen gainean galdetuta. Egunero lanera joateko edo lan egiteko buruhaustea dituzten batzuen hitzak jaso ditugu ondorengo lerroetan.

### Edurne Isazelaia

DUKIENA JATETXEKOA

### "Bezeroak galdu ditugu; krisiarekin gutxi genuen, eta orain hau..."

Dukiena jatetxean haserre daude. Errepidearen egoerak zuzenean eragin die: "Bezero asko galdu ditugu, batez ere arrasatearrek. Guri, behintzat, krisiari aurre egiteko ate bat itxi digute. Eta eguraldi ona hasten denean...", dio Isazelaiak.

Kexu da Arabako Aldundiko ordezkariak Udalean egindako bileraren berri GOIENKARIAREN bidez jakin dutelako. Era berean, "oso haserre" dago hedabideek emandako informazio "urriagatik": "Hedabide gutxi ibili dira Aramaio egoera zuzenean ikusten. Etorri eta konturatu zarete nola gauden!".

Auzotarrekin errepideaz bakarrik berba egiten dutela esan digu: "Istripuei edo errepideari buruz bakarrik egiten dugu berba. Nazkatuta gaude!".



Aramaioarrek hainbat protesta ekitaldi egin dituzte lur-jausia egon zenetik.

ARTXIBOA

### Arantxa Altuna

KINTELENA DENDAKOA

### "Merkantziarekin datozen kamioilariak atzerapenarekin heltzen dira"

Lur-jausia gertatu zenetik, merkantzia daramaten kamioilariaren arazoak dituzte Kintelena denda. Orain arte astean bitan joaten ziren kamioiak; baina egun, behin bakarrik ibiltzen dira. "Jogurtak ekartzen dituen kamioia behin bakarrik dator, eta larri ibiltzen da. Gehienak birakoka heltzen dira dendara. Eskerrak, oraingo, ez garen oinarritzko produktu barik geratu", esan digu Arantxa Altunak.

### Jose Luis Lasaga

LATZA BASERRIKOA

### "Lasaitasuna galdu dugu; lantegietako irteera orduetan auto asko dabil"

Zabolako auzotarrek lasaitasuna galdu dute erabat. Latza baserrian kontu handiz ibiltzen dira etxetik irteteko. "Izugarria da; batez ere, lantegietako irteera orduetan auto asko dabil. Traktorearekin irten aurretik bi aldiz begiratu behar dugu errepidera", dio Lasagak. Era berean, kezkatuta dago udaberrian ganadua mugitzen hasi behar dutenerako: "Animaliak zelai batetik bestera eraman beharko ditugu eta errepidea guru-

tzatu beharko dugu. Zirkulazioa kontrolatzeko udaltzain lanak egin beharko ditugu!", dio.

Gabonetarako bukatuko ei dute errepidea, baina Lasagak ez du hori sinesten: "Epea luzatu egingo da, ziur; eta bitartean, buruhaustekin jarraituko dugu. AHTko lanen erruz jausitako errepidea zabaltzeko, hainbat auzotarrek euren lurak utzi beharko dituzte. Ez da normala!".

### Tamara Irizar

FARMAZIARI LANGILEA

### "Tentsio handiarekin gidatzen dut orain; errepidea estua eta arriskutsua da"

Eguneroko errutina aldatu behar izan du Tamara Irizarrek Aramaio farmaziara heltzeko. Guztia lur-jausia gertatu baino 15 minutu lehenago egiten du; hain justu ere, Arrasatetik Aramaiora behar duen denbora. "Egunero lau aldiz egiten dut bidea, eta lehen baino tentsio handiagoz gidatzen dut. Orain, denbora luzeagoa behar dut, eta errepidea estua eta arriskutsua da", dio.

Gaineratu digu eguraldiak ez duela askorik lagundu: "Errepide bakarra dagoenez, elurragatik bi

egun lanera etorri ezinda egon naiz. Baina ezin dugu beste ezer egin. Ni, behintzat, etsita nago", dio Irizarrek.

### Mikel Bengoa

AUTOBUS GIDARIA

### "Autobus txikiekin nabil, handia ez delako errepidean kabitzen"

Mikel Bengoak egunero eroaten ditu Aramaio ikasleak Arrasatera. Lur-jausia egon zenetik autobus handia gelditu dauka ikasleendako, eta txikiekin dihardu. "Ze erremedio! Autobus handia ez da errepidean kabitzen, eta txikiekin nabil. Egunero sei kilometro eta bidaia gehiago egin behar ditut. Dirua galtzen nabil. Lur jota nago", dio. Gainera, autobus handiarekin lotuta zituen bestelako zerbitzuak emateko Legutiotik egin behar du buelta: "60 kilometro egiten ditut Arrasateraino joan-etorria egiteko, baina gehiegizko kilometroak ezin ditut kobratu, bezeroek ez dute-eta errurik".

Arabako Foru Aldundiak emandako irtenbidearen gaineko iritzia eman digu: "Saihesbidea egiten badute, autobus handiarekin ondo ibiliko naiz".

FORU ALDUNDIAREN ASMOA

### Saihesbidea egitea aurreikusten dute

Arabako Errepide Saileko diputatu Luis Alberto Zarrabeitiak Aramaiora egindako bisitan esan zuen hilabete barru bukatuko dituztela egun aramaioarrek erabiltzen duten bidearen konponketa lanak. Bestalde, errepidearen egoerari behin betiko irtenbidea emango liokeen proiektua ez dutela oraindik zehaztu esan zuen. Asier Agirre alkateak gaineratu zuen Suña-Boluetako errotaren gainean saihsbide moduko bat egitea aurreikusten duen proiektuak dituela aukera gehien. Bestalde, Zarrabeitiak esan zuen lanok Adifek egingo dituela eta, eguraldiak laguntzen badu, maiatzean hasiko dituztela. Epeak betetzen badira, abendurako bukatuko dituzte A-2620 errepidea berritzeko lanak.

OBRAK &gt; ZALDUSPEKO PLAN BEREZIA, OSPITALE-GUNEAN

# Eraikin zaharrak bota eta berria eraiki gura dute Zalduspe gunean

Asmobiren eraikina izan ezik, gainerakoak (Lasa, Canas, Pazi-Ola, Escobar eta autoen konponketa garajea) botatzea da asmoa

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Datarik ez dute zehaztu, baina bai Zalduspe eremua (ospitale ondo-koa) asko aldatuko dela etorkizunean. Hala erabaki dute asteon udal agintariek.

Asmoa da ospitale ondoan dauden pabiloi gehienak botatzea. Eta haien pareko lursaile-

an, aparkaleku moduan erabiltzen den horretan, eraikin, kale eta biribilgune berriak egitea.

**KALE ETA BIRIBILGUNE BERRIAK**

Hain zuzen, kale berria egingo dute ospitalea eta fabrika-gunea banatzeko. Nafarroa etorbideetik izango du sarrera. Eta biribilgunea ere eraikiko dute Nafarroa etorbidea kale berriarekin lotzeko. Era berean, Musakolatik datorren bidegorriak jarraipena izango du kale berriaren paralelo.

Berritasunekin segituz, eraikin berria ere egin gura dute, jarduera ekonomikoetarako. Kale berriaren paralelo kokatzea da asmoa, ospitalearen eraikinarekin lerrokatuta.

**395 APARKALEKU**

Eta Zalduspe eremuaren ordenazioa borobiltzeko, aparkalekuak ere egokitu gura ditu Udalak: 395: 127 bide publikoan, 230 eraikin berrian (azpiko aldean) eta gainerakoak esparruko zerbitzuen arabera, "eremu horren beharrak asetzeko izango dira, ez ospitale-gunearenak", azpimarratu du Udalak.

**PLAN BEREZIA JENDAURREAN**

Esandako hori guztiori, baina, hasiera fasean dago; hau da, gune hori zelan ordenatu erabaki dute, Plan Berezian. Orain, plana jendaurrean ipini dute, hogei egunez, gura duenak kontsultatu eta alegazioak aurkez ditzan.



Gaur egun pabiloi eta autoek okupatzen dute Zalduspe eremua osorik.

U.M.



MIREN MANIAS

## 'Bullying'-aren gaineko lana saritu

Eusko Jaurlaritzako ordezkarien eskutik saria jaso zuten martitzenean Leire Martinez, Ainhoa Arresti eta Aintzane Rodriguez Arizmendiko DBHko ikasleek. *Bullying*-aren gaineko *Ezin dut* film laburra egiteagatik irabazi dute saria. Bestalde, Leire Zubillaga ikasleari beste sari bat eman zioten, gai bereko eskutitzen lehiaketa irabazteagatik.

&gt; ELKARTASUNA

### 2.144 euro batu dira, Haitiko umezurtzei laguntzeko

Haitiren alde martxoaren 6an egindako pintxo-poteo berezian 2.144 euro batu zituzten. Haitira bidaliko dute orain diru hori, Mesedeetako mojei emateko. Haiek *Kaleetatik noraezean dabiltzan neskak* eta *mutikoak salba ditzagun* izeneko proiekturako erabiliko dute. Arrasate Bizirik ostalaritza elkarteak eta gobernuz kanpoko Harreman erakundeek eman dute asteen euren ekimenaren emaitzaren berri.

&gt; GAZTEAK

### Ludotekatik Hondarribira irteera, Pazko Astean

Txatxilpurdi elkarteak irteera antolatu du, Pazko Asterako, apirilaren 7a, 8 eta 9rako. Hondarribiko aterpetxera joango dira, eta han hainbat ekintza egingo dituztela iragarri dute. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara bitarteko ume eta gazteei zuzendutako ekimena da hori. Joan gura duenak martxoaren 23a baino lehen eman behar du ize-na: 943 79 54 46. Prezioa da 50 euro.

UGARAN

Jatetxea

Garagartzza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

Muxa

Gozotegia



fotokopiak  
prentsa  
edariak  
gozokiak  
festak  
eta abar

Elkano 3 (Zigarrola) • Arrasate



Enrique  
El Grande

Bihar Martxoak 19  
00:00etatik aurrera

IAMAIANTZOKIA  
ARRASATE



URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa ¥ ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxes: 943 77 14 76



943 711768

MUSIKA

## Gaur diskoa aurkeztuko du Governors taldeak

'Frenetikodrome' diskoan hamar kantu eta estra bat grabatu dituzte

M.B. > ARRASATE

Governors arrasatearrek *Frenetikodrome* diskoa aurkeztuko dute gaur Bilboko Elkar aretoan. Aurkezpenean egongo dira taldeko kideak eta Oihuka diskoetxeako ardura-dun Angel Valdes.

**HAMAR KANTU ETA ESTRA BAT**

Governors taldeak Usurbilgo Higain diskoetxean grabatu du diskoa Harritz Harreguy-rekin. Hamar kantu "indartsu" eta estra bat sartu dituzte; hain zuzen ere, *Kristal kolpatuak* kantua audioa eta bideoa. Bada, bideo hori erabili zuten Hatortxurock jaialdia aurkezteko. Gainera, Euskal Zinema eta Bideo jaialdia irabazi zuten. Gitarra indartsuak, erritmo biziak, eta ahots boteretsuak dira diskoaren ezaugarriak.



Aitor Aldanondo bergararra jaurtiketa egiten, 2008an Egiaren kontra jokatu zuten partiduan.

GOIENKARIA

**KIROLA > ESKUBALOIA**

## Azken hamarkadako lehia garrantzitsuen

Ford Mugarrik derrigor irabazi beharko dio bihar Egia taldeari, igoera postuetan egoteko

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Hil ala biziko lehia jokatu du bihar (Iturripe, 11:45) Ford Mugarrik Lehen Mailarako igoera jokatzeko txartela ematen duen bigarren postua eskuratzeko. Ezinbestean Egiari irabazi egin

beharko dio. Bi puntuko alde dute donostiarrek -36 puntu dituzte, eta 34 arrasatearrek-, eta liga bukatzeko hiru partidu geratzen dira. "Berdinketak ere ez liguke balioko. Ezinbestean irabazi egin behar dugu", esan

digu Edu Orgaz entrenatzaileak. Kepa Kruzeta izan ezik -azkene-ko lehia behatza apurto zuen-gainerako jokalaria prest ditu urteko partidu garrantzitsuenari aurre egiteko.

**KAKOA, DEFENTSAN**

Biharko lehiako kakoari buruz galdetuta, hauxe esan digu Orgazek: "Gure jokoa egiteko aukera badugu, konfiantza handiagoz jokatu dugu. Gainera, Egiaren eraso defendatzeko gai izan behar dugu, mailako erasorik onena dute-eta".

Bihar irabaziz gero, ezin dute hutsik egin domekan 12:00etan Hondarribiaren kontra jokatu duten lehia.

> ATLETISMOA

## Euskadiko marka ondu zuen Lore Marrek Oviedon

Bidasoa taldeko Lore Mar aretxabaletarrak pertika saltoan Euskadiko marka ondu zuen Oviedon jokaturako gazte mailako Espainiako txapelketan. 3,56 metroko salto egin zuen, eta zilarrezko domina jantzi. Gainera, Maialen Axpe arrasatearrek brontzeko domina jantzi zuen 3,51 metroko saltoarekin.

Era berean, azpimarratzekoa da Eukene Dorronso-rok 200 metroko proban lortutako laugarren postua.

> SASKIBALOIA

## Garaipena ezinbestekoa da Murendako

Larri dabil Mondragon Unibertsitatea jaitsiera fasean. Orain arte jokaturako bi partiduak galduta, puntuak behar ditu lehenbailehen. Zapatuan, aukera ona du Promociones Legarciaren kontra (Iturripe, 18:00etan).

Jaitsiera fasea bukatzeko zortzi jardunaldi geratzen dira, baina ezinbestean irabazi behar du MUK, mailari eusteko aukera ematen duten postuetara heltzeko.

## Udaberriko tratamenduak 2010

nº R.P.S. 297 / 05.



**Amagara**

Erdiko kalea 54 behea 20500  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 09 09

*Etorri gure  
promozioak ezagutzera*



**Zeremoniak:**  
gerta zaitez egun berezi horretarako.



**Solariuma:**  
zure brontzeatua eta azala zaintzen ditugu.



**Gorputza eta aurpegia:**  
saio pertsonalak.



Antolatzaileek martitzenean Usono parkean egindako aurkezpena, umez inguratuta.

JARDUN ELKARTEA

JAIK &gt; ERRAMU-ZAPATUA

## Erramu-zapatuko bazkaria 500 lagunendako antolatu dute

Txartelak salgai daude; seme-alabak dituztenendako zaintza zerbitzua jarriko dute

**MONIKA BELASTEGI > BERGARA**  
Erramu-zapatua gero eta gertuago dago eta, azkeneko hiru urteetan egin duten moduan, herritar talde batek hainbat ekitaldi antolatu du egun horri begira, Udalaren eta hainbat dendaren laguntzarekin.

Erramu-zapatuko azokako jai giroak zeraman gainbeheraz larrituta zegoen herritar talde hori. "Bergaran ez dago halako azoka-egun askorik; ondorioz, hori mantendu eta indartzeak duen beharraz jabetuta, zerbait egin behar genuela pentsatu

genuen", esan dute antolatzaileek. Era berean, Erramu-zapatuko azoka-eguna bergararren "euskal jai" bilakatzea nahi dute: "Herritarren parte-hartzea bultzatuko duen jai, euskal eta bergararren nortasuna eta kultura kalera ateratzeko eguna, euskaraz eta euskal kulturaz gozatu eta festa egiteko eguna". Horretarako, azken hiru urteetan gero eta indar handiagoa hartzen doazen ekitaldiak antolatu dituzte, eta herri bazkaria da horren adibide: lehena 250 lagunendako antolatu zuten; aurtengoa, 500endako.

### HERRI BAZKARIA

Aurtengoa ere Udal Pilotalekuan izango da herri bazkaria eta 500 lagunendako txartelak jarri dituzte salgai, Pol-Pol, Ariznoa eta pilotalekuko tabernan. Prezioari dagokionez, helduek 18 euro ordaindu beharko dituzte eta 10 urtetik beherakoek, berriz, 10 euro. Menua izango da: hasierakoak, txekorra burruntzian erreta eta entsaladaz lagunduta, postrea, kafea eta kopa.

Berrikuntza moduan, haurrak dituzten familiendako haurtzaindegi zerbitzua jarriko dute pilotalekuan. Interesatuak kultura etxera (943 77 91 58) deitu beharko dute izena emateko.

### oharrak

#### IZENEMATEA

> **Begiraleendako izenematea zabaldu dute udalekuearako**

Uztaileko udaleku irekietarako izenematea da, gaur, eguna, hasi, eta martxoaren 31ra arte. Baldintza ezinbestekoak dira 18 urtetik gora izatea eta euskaraz jakitea; begirale titulua izatea ere baloratuko da. Izena emateko jo

Agorrosingo ludotekara 17:00-19:00 ordutegian edo deitu 696 91 38 08 zenbakira.

#### BATZARRA

> **Erabilera askotariko antzokiaren gaineko bigarren batzarraren**

Hilaren 23an egingo dute, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

#### HITZALDIA

> **Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldi sortako azkena**

Soberaniaren aztarnak delako hitzaldia egingo du Floren Aozek. Martxoaren 24an, eguaztena, izango da, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Euskal Herriko historiaren gainean antolatutako sortako azkena da.

JENDARTEA &gt; TURISMOA

## Turismo Bulegoa zabalik dago apirilaren 18ra arte

Ohi bezala, doako bisita gidatuak eskainiko dituzte alde zaharrea barrena

**M.B. > BERGARA**

Denboraldi berriari ekin dio Turismo Bulegoak eta eguaztena ezker zabalik dago. San Jose zubia aprobetxatuz ireki dute eta halaxe egongo da apirilaren 18ra arte.

Ohi bezala, bisita gidatuak ere eskainiko dituzte. Horretarako, txanda hartu baino ez dago

943 77 91 28 telefono zenbakira deituta. Bisita gidatuak doan izango dira.

### BULEGOAREN ORDUTEGIA

Bulegoaren ordutegia izango da apirilaren 18ra bitartean: asteleheneetik zapatara 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eta domeka eta jaiegunetan 10:30etik 13:30era egongo da zabalik. Martxoaren 28an eta apirilaren 11n itxita egongo da eta apirilaren 1ean eta 2an, berriz, honako ordutegia izango du: 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.



JARDUN ELKARTEA

## 70 lagun batu ziren sagardotegian

Bergarako eta Arrasateko udal euskaltegiak, Berriketaren eta Zaharberri egitasmoetako eta AEK-ko 70 euskaltzale batu ziren martxoaren 5ean Tolosako Aldaba txiki auzoko Isastegi sagardotegian. Bapote eta edan eta gero, gaurdian jota hartu zuten autobusa nor bere herrira bueltatzeko. Irudian, Bergaratik joandako taldeetako bat.

**ST PATRICK EGUNEKO BIHARAMUN JAIK**  
Musika saio irekia Gan Ainn eta lagunekin

**Etorri kantura!**

**KAI TABERNA** Martxoaren 18an 22:30ean

**CAMACHO**  
Drogeria  
Lurrindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

**ARANE**  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 74 09  
670 483 903

**ANTIA**  
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**ANDUZU**  
GARRAIOAK

Grua zerbitzua  
Zerbitzu publikoa | Era guztietako kargak

**BERGARA**  
607 34 90 43



Bizardunak taldea, iaz 3.60 aretoan egindako emanaldian.

GOIENKARIA

MUSIKA > KONTZERTUA

## Bizardunak gaztetxean eta Txapa Irratiko uhinetan

Bihar, egubakoitza, Nafarroako folk taldeak emanaldia egingo du gaztetxean, 22:30ean

X.U. > BERGARA

Txapa Irratiak antolatuta, egubakoitz gauean kontzertua izango da Bergarako gaztetxean. Emanaldi hori bertatik bertara jarraitu ezin duenak, gainera, aukera bat baino gehiago izango du. Izan ere, Txapa Irratiak zuzenean eskainiko du emanaldia (FM 97.25), baina ez irratiko uhinetatik barrena bakarrik, sarean ere emanaldia jarraitu ahal izango duzue-eta ([www.txapairratia.org](http://www.txapairratia.org)).

Bizardunak Nafarroan sortutako eta euskaraz abesten duen folk musika taldea da. Taldea bederatzi lagunek osatzen dute eta euren musika estiloa euskal folk erradikal gisa definitzen dute. The Dubliners eta The Pogues musika talde irlandarren estiloetan oinarritu dira kantuak osatzeko.

Gaztetxean, baina, bi talde izango dira taulagainean, Bizardunekin batera Les Faboulozers taldeak ere joko du-eta.

> ANTZERKIA

## 'Rosas rojas' tratu txarren gaineko antzezlanaren egubakoitzean Zabalotegin

Bihar, egubakoitza (22:30), La Papa antzerki taldeak *Rosas rojas* antzezlanaren egubakoitzean Zabalotegin (5 euro). Taula gainean aktoreek tratu txarren gaineko hausnarketa egitera gonbidatuko gaituzte. Lydia eta Raul protagonisten arteko maitasun harremanen manipulazio emozionalaren seinaleak agertzen hasiko dira pixkanaka, azkenean tratu txar fisikoak agertu arte.

Antzezlan horrekin, maitasun istorioen sorreran antzeman daitezkeen hainbat jarreraren inguruan hausnarketa egiten du Ricardo Combi zuzendari eta idazleak.

ESKUBALOIA > LEHEN TERRITORIALA

# Muniategi: "Igoera faserako sailkatuta, gora igotzeko ahalegina egin behar dugu"

Liga amaitzeko jardunaldi baten faltan Soraluze BKE taldeak dagoeneko lortu du igoera faserako sailkatzea; 27an hasiko dute erronka berria

XABIER URTZELAI > BERGARA

Soraluce BKE (27) taldea Ereintza (25) baino gehiago izan da sailkapeneko hirugarren postua lortzeko lasterketan. Joan den asteburuan Muniategiren mutilek ez zuten Eibarkoen kontra barkatu (29-22), eta Ereintzak, aldiz, ezin izan zion Bergarakoen erritmari eutsi, 25-19 galdu zuten-eta Donibanen. Hala, mahoneroek asteburuan Pulporen kantxan jokatu duten partidua jokalarien artean minutuak banatzeko erabiliko du Bergarako entrenatzaileak: "Ikasten, kanpoan lanean, min hartuta... ibili diren jokalariei minutuak emateko erabiliko dugu asteburuko partidua".

MARTXOAREN 27AN

Bergarakoek, baina, ez dute atsedetik izango, berehala hasiko dute-eta igoera fasea, hilaren 27ko eta 28ko asteburuan. Fase



Gorka Ugalde atera jaurtiketa egiteko gertu, artxiboko erretratuan.

GOIENKARIA

berrian Gipuzkoako txapelketatik sailkatu diren Egiarekin eta Elgoibarrekin batera, Bizkaiko Deusto Loiola eta Trapagaran eta Arabako Corazonistas izango dituzte kontrario. Sei oilar aurreko bi postuengatik borrokan: "Behin honaino iritsita, helburuak kategoriaz igotzea izan

behar du. Hamar partidu izango dira, eta saiatu behar dugu azkar eta gogotsu jokatzeko, defentsan txispa izan, azkar igo, eta golak erraz sartzen. Azken bi urteok penitentzian igaro ditugu, kategoria galdu genuenetik taldea berriz egiten; ea saria lortzeko gauza garen".

### TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 76 39 53



ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

### disdira

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

- Eguneko menua.
- Afariak aste bukaeretan.
- Pizzak.
- Terraza.
- Domeketan ere zabalik eta pizzak enkarguz eroateko.

## ZUHAIZTI

Izarra eta konpainia,  
zuen zerbitzura!

Espaloia 6 Bergara 943 76 59 22

# BERGARA

## Margoak

Certificado ISO 9001 por



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. [bergara@bergaramargoak.com](mailto:bergara@bergaramargoak.com)

Idoia Laspita &gt; Udaltzain burua

# "Udaltzaingo zerbitzua hobetzeko baliabide gehiago ditugu orain"

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Orain dela hamar egun hasi ziren lanean sei udaltzain berri. Aurrerantzean zerbitzua aste bukaerara luzatuko dute. Hain zuzen ere, apiriletik aurrera, zapatuetan eta domeketan egingo dute lan. Oraingoz, gauean ez da udaltzain zerbitzurik egongo. Idoia Laspita udaltzain buruarekin egin dugu berba.

Sei udaltzain berri dituzue lanean; orain, 11 zaudete. Zerbitzu hobea emateko gertu zaudete?

Bai, hori da gure asmoa. Orain arte ematen genuen zerbitzuaren kalitatea handitzeko baliabide gehiago izango ditugu. Horren adibide da apiriletik aurrera aste bukaeretan zerbitzua emango dugula: zapatuetan eta domeketan bina udaltzain egongo dira lanean, zapatuetan 07:30etik 21:30era eta domeketan 09:30etik 21:30era.

**Gauean ez duzue zerbitzurik emango?**

Sei udaltzain gehiago egon arren, ez gara nahikoak gauetako txandak egiteko. Gutxienez, beste sei udaltzain beharko genituzke, aste osoko txandak antolatu eta zerbitzu ona emateko.

Oraingoz, ezin dugu gauean zerbitzurik eman.

**Nola antolatzen duzue astea udaltzaingoan?**

Egun, bi txandatan egiten dugu lan, eta bakoitzean lau udaltzain daude. Aste bukaerako txandekin hasten garenean, zapatuetan eta domeketan lan egiten dutenek jai izango dute astegunetako egun batzuetan.

**Zertan antzemango dugu udaltzain gehiago daudela herrian?**

Batez ere, zerbitzu hobea emateko asmoa dugu. Hau da, udaltzain gehiagorekin, orain arte heltzen ez ginen tokietara joango gara. Askotan entzun dugu, *Udaltzainak ez dira gure auzotik pasatzen!* Eta arrazoi dute. Alde horretatik, egoera dezente hobe-



Idoia Laspita, bulegoan.

MIREIA BIKUÑA

tuko da. Bestalde, beste helburuetako bat da herriko zirkulazioan eskua sartzea. Zorrotzagoak izango gara isunak jartzerako orduan, baina baita ere abiadura kontrolatzerako orduan.

Gainera, lantaldea handitu dugunez, zaintza lanak ere toki gehienetara zabalduko ditugu. Hala, aukera izango dugu erdiguinetik kanpo dauden auzoetan bi buelta emateko egunero.

Azkenik, esku artean dugun beste asmoetako bat da, herriko hainbat tokitan, zamalanak egiteko guneak ipintzea. Laster hasiko gara kontu horrekin.

**Herriko udaltzain guztiak Oñatitik kanpokoak dira. Hori arazoa da lantalde egonkor bat osatzerako orduan?**

Zalantza barik, bai. Orain hasi direnak Bilbo, Santurtzi, Gernika, Durango, Zumarraga eta Arrasatekoak dira; eta, lehendik daudenak, guztiak, kanpokoak. Bailarakoak eta inguruko herrietakoak direnak ez dira mugitzen. Baina, egunero Santurtzitik joan-etorria egiten duenaren oso gogorra izaten da. Orduan, normala izaten da euren herriatik gertuagoko tokietan lanpostuak lortzen dituztenean alde

egitea. Oñatin lanpostua topatu dutenak edozein unetan aurkez daitezke beste lanpostu batera.

Orain dela egun batzuk bailarako udaltzain buru guztiok bilera izan genuen, eta gai horren gainean jardun genuen. Guztion ametsa da lantalde finkoa edukitzea, baina oso zaila da.

**Herriarrek badakite udaltzaingoak ematen duen zerbitzua erabiltzen?**

Egoitza aldatu genuenean, herriarrei kosta egin zitzaion guregana etortzea, eta udal bulegoetara joaten ziren. Orain, guregana datoz. Bestalde, salaketa penalak jartzera, lehen, Ertzaintzara joaten ziren, Bergarara. Orain, guregana datoz. Iaz, 120 bat salaketa jaso genituen.

**"Aurrerantzean zorrotzagoak izango gara isunak jartzen eta abiadura kontrolatzen"**

**"Herriarrek guregana etortzen dira salaketa penalak ipintzera"**

**Giltzagune proiektua martxan dagoenetik, lasaiago zabilzate udaltzaingoan?**

Bai. Piboteak jaisteko eta igotzeko giltza suhiltzaileen eta larrialdietako zerbitzuetako kideen eskuetan dago, eta ez dute gurekin hartu-emanetan jarri behar larrialdia dagoen gunera heltzeko. Halakoetan segundoak oso inportanteak izaten dira. Alde horretatik, lasaiago gaude. Guk zerbitzurik ematen ez dugunean, eurek dute giltza.

Dena den, erdiguneko kaleetan dauden 12 giltzaguneetako bitan tapak apurtu dituzte, eta sarrailak bistan daude. Edonork zerbait sartzen badu sarrailetan, larrialdi zerbitzuetakoak giltza erabili ezinda egongo dira. Herriarrendako zerbitzua da, eta egoki erabiltzeko moduan egon beharko lirakeke giltzaguneak.

**Haizealdiaren egunean lan handia eduki zenuten?**

Bi udaltzain egon ginen lanean bi txandatan, brigadako beste kide batzuen laguntzarekin. Dena den, halako egoeratan legeak dio udaltzainok lanera etortzeko beharra dugula.

&gt; DEIALDIA

**Domekan egingo dute Aloñako magalean Zuhaitz Eguna**

Aloñako magalean dagoen elurra urtzen bada, etzi egingo dute Zuhaitz Eguna gurutzearen inguruan. 30 lizar landatu gura dituzte, eta herriarrentzen laguntza behar dute. Azken orduan aldaketarik badago, [aloinalagunak.blogspot.com](http://aloinalagunak.blogspot.com) blogean jakinaraziko dute.

&gt; KIROLA

**Herri mailako ehiza txapelketa egingo dute bihar**

Herri mailako ehiza txapelketa egingo dute bihar Zambanan (Araba). Parte-hartzaile bakoitzarentako bi eper eta faisai bat askatuko dituzte, eta 09:00etatik 13:00etara gehien harrapatzen duenak irabaziko du txapelketa. Eper bakoitzak 101 puntu balio ditu eta faisaiak 100 puntu.

&gt; MERKATARITZA

**Martxoan sariak, Txanda txartela erabiltzeagatik**

Txanda elkarteak bost eta hamar euroko sariak banatzen dihardu martxoan, erosketak Txanda txartelarekin egiten dituzten bezeroen artean. Gainera, txartela erabiltzen dutenek %1eko deskontua jasoko dute, eta Madalena gasolindegian, %2ko deskontua.

&gt; INFORMATIKA

**Askotariko ikastaroak egingo dituzte KZgunean**

Martxoan bukatu aurretik gai eta iraupen ezberdineko ikastaroak emango dituzte KZgunean. Ikastaroen gaineko informazioa eskatzeko edo izena emateko 943 08 16 34 telefonora dei daiteke, edo mezua idatzi [tutor.onati@kzgunea.net](mailto:tutor.onati@kzgunea.net) helbidera.

**ZELAI A**  
ONATI  
[www.zelai.net](http://www.zelai.net)

**40**  
urte  
elkarrekin  
1970-2010

**2010eko  
EROSKETA DOAN!**

**2010ean GURE DENDETAN EGINDAKO EROSKETAK DOAN IZAN DAITEZKE ZURETZAT!**

Erosketa egiterakoan emango dizugun txartelaren zenbakiak Loteria Nazionalaren azkeneko hiru zenbakiekin bat egiten badu, egindako erosketaren zenbateko osoa bueltatuko dizugu.

**Anima zaituz eta ospatu urteurrena gurekin!**

KONTZERTUA > ABESBATZA

# Bilboko San Anton abesbatza bihar parrokian

Aretxabaleta abesbatzaren 30. urteurrena ospatzera dator; abenduan aretxabaletarrak joango dira Bilbora

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Aretxabaleta abesbatzak 30 urte bete ditu aurten eta ospakizunez betetako urtea izango da 2010a. Urteurren horren barruan, Bilboko San Anton abesbatza ezaguna gonbidatu dute eta bihar, San Jose eguna, egingo du ekitaldia parrokian (19:00). Abendu inguruan, ostera, aretxabaletarrak joango dira Bilbora.

Biharko kontzertuarekin gogorarazi gura dute orain dela 30 urte, egun berean, egin zuela lehenengo ekitaldia Aretxabaleta abesbatza sortu berriak.

DONOSTIARA GEHIAGO

San Anton abesbatza ibilbide luzea duen taldea da. 1947an sortu zuten eta 60 urtetik gorako ibilbidean ekitaldi garrantzitsuetan hartu du parte; Berriotoako Valentinen kanonizazio unean, esaterako. Gainera, Bizkaiko egitarau garrantzitsuetan jarduten du eta Santurtziko konposizio lehiaketan lehen saria irabazitakoa da. Kanpoko hainbat herrialdeko abesbatzekin harreman estuak ditu: Italiakoekin, Alemaniakoekin, Suitzakoekin... eta elkartrukeak egin izan dituzte.

40 bat gizon-emakumek osatzen dute gaur egun San Anton abesbatza, eta Alfredo Hurtado Saratxo zuzendariaren esanetara egiten dute lan. Abesti erreperitorio zabala dute, bai folklore abestiei dagokienez, bai polifoniakoei dagokienez, eta konposatzaile famatuena lanak kantatzen dituzte.

> SARIA

## Leire Zubillagak saria jaso du 'bullying'-aren gaineko lehiaketan

Kurtzebarri institutuko ikasle Leire Zubillaga aretxabaletarrak saria irabazi du Jaurlaritzak umeen eskubideen gainean antolatutako lehiaketan, gutunen sailean. *Bullying*-a jasaten dabilen lagun bati idatzitako gutun hunkigarriatik eman diote saria.

Azaroan bete zen Umeen Eskubideen 20. urteurrenaren barruan hainbat lehiaketa antolatu zituen Jaurlaritzak.

> KIROLA

## Lehen eta bigarren postuak karateko Gipuzkoako txapelketan

Gipuzkoako karate txapelketa jokatu zuten zapatuan Donostian eta UDA elkarteko bi jokalaririk izan ziren bertan. Kumite modalitatean jokatu zuten biek, haurren mailan; Oxel Vazquezek lehen postua eskuratu zuen (45 kiloz azpikoa) hiru borroka garaituta eta Iker Hervasek bigarrena (60 kiloz azpikoa). Lan bikaina egin zuten biek, baita coach edo gidari lanetan ibili zen Odei Vazquezek ere.



Arlutz xake taldeko kideak San Viatorren aurka jokatzeko zapatuan.

ARLUTZ

KIROLA > XAKEA

## Ohorezko mailan jarraituko du jokatzeko Arlutz taldeak

M.A. > ARETXABALETAKO

Joan den zapatuan, hilak 13, bukatu zen xake denboraldia. Arlutz xake taldea zortzigarren postuan geratu da eta ohorezko

mailan jarraituko du jokatzeko datorren denboraldian ere.

Denboraldi polita egin du Arlutzek, nahiz eta zortzigarren postuak (16 puntu, 7. dagoen Easo-

rekin berdinduta) ez adierazi hala korrik. Baina laugarren postuan geratu den San Viatorren eta zortzigarrenaren artean bi puntuko aldea besterik ez dago. Joan den zapatuko partida, hain zuzen, San Viatorren aurka jokatu zuen Arlutzek, eta galdu, 2,5-1,5 (zuzenean eman zuten partida Interneten).

Jokatutako bederatzi partidetatik lau berdindu egin ditu Arlutzek, tartean Gros talde indartsuaren aurka; lau, galdu; eta bakarira irabazi, azkeneko geratu den Oberenari. Hala ere, partida guztietan eskuratu ditu puntuak. Arlutzeko jokalaririk Fran eta Andoni Miguel anaiek, Aitor eta Mikel Alcaide osaba-ilebek eta azken partidetan jardun duen Jesus Berezibarrek pozik bukatu dute denboraldia; izan ere, jokalaririk bikainak -nazioarteko maisuak eta Fide maisuak- dauka gainerako taldeetan.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Apirilean, Pazko astean, hain zuzen, Euskadiko txapelketa jokatu du Aitor Alcaidek. Mikel Alcaidek, ostera, Euskadiko gazte mailako txapelketan jardungo du.

KIROLA > TRIALSINEKO GIPIZKOAKO TXAPELKETA

## Txapelketako azken proba domekan gurean

M.A. > ARETXABALETAKO

Trialsineko Gipuzkoako txapelketari dagokion azken proba jokatu dute domekan, hilak 21, Aretxabaletan (10:30). Urtero legez, Porrakotxara basoan eta kanposantura bidean dagoen trialsinean jarduteko gunean egingo dituzte probak txirrindulariek.

Ohiko kirolariez gain, edozein zalek parte hartu ahal izango du. Antolatzaileek bizikletak, kasakoak eta berna-babesleak utziko dizkiete.

ESPAINIAKO TXAPELKETA ONDO

Joan den aste bukaeran, ostera, Espainiako txapelketa hasi zuten

Lorca herrian (Murtzia). Euskadiko taldearekin joan ziren Aitor Murua (kadetea) eta Unai Zuntzunegi (haurra). Proba politik egin zituzten biek, kontuan hartuta Muruak (5. postua) hilabete eman duela entrenatu barik lesio baten ondorioz eta Zuntzunegi (4. postua) haurren mailako gazteena dela.



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABALETAKO

Tel. 943 77 00 33/79 42 56

Mobiliario  
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETAKO

Jou Diaz  
Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETAKO

Garbittu

Errekabarren 3, behea ARETXABALETAKO

Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21

garbittu@euskalnet.net

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak

MUSIKA &gt; BIDE ERTZEAN

# Denondako zuzeneko lasaia entzungai bihar

Bide Ertzean taldea ikusteko sarrerak 5 euro balioko du, leihatilan erositara

MIRIAN BITERI &gt; ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik, guztiendako gomendagarria den zuzeneko lasaia entzuteko aukera egongo da bihar, egubakoitza, Eskoriatzan. Izan ere, Bide Ertzean taldeak *Leidor sessions* izeneko lana aurkeztuko du unibertsitateko aretoan, 22:30ean.

Bide Ertzean taldeak zuzenean grabatu zuen 2009ko urtarrilaren 16an Tolosako Leidor antzokian eskaini zuen kontzertua. Horrekin, tolosarrek zuzenean grabatutako lehen diskoa argitaratu zuten Durangoko Azokan, eta orain, taldeak bira txikia egingo du hilaren bigarren hama-

bostaldian; eta, tartean, bihar Eskoriatzan egingo duten emanaldia dago.

Laukote moduan arituko dira, Ubeda anaiak, Fran Iturbe gitarra-jotzaile bergararra eta Karlos Arantzezi bateria-jotzailea. Tolosako saioan eskainitako kantuek joko dituzte; tartean, *Graffiti* izeneko kantu berria. Baina, horrez gain, dagoeneko prestatzen ari diren lan berriko beste hainbat abesti ere entzun ahal izango dituzte zaleek.

#### SARRERAK, LEIHATILAN

Sarrerak salgai daude egunotan Inkernu tabernan, 5 eurotan. Aitzorrotz elkarteak jakinarazi digute kontzertua hasi aurretik ere prezio berean salduko dituztela leihatilan. Horrekin batera, gogorarazi dute plaza kopurua mugatua dela, eta, hortaz, gomendatu dute sarrera ahalik eta azkarraren erostea. Unibertsitatean 100 lagunendako tokia dago.



MIRIAN BITERI

## Asteon, umeen elikaduraz jardun dute

Harrera ona izan zuen martitzen arratsaldean, Luis Ezeizan, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak haurren elikaduraren gainean egindako hitzaldiak. Hazkundera garapen fisiko eta psikiko egokia izateko, txikitatik ondo jaten ikastea eta elikadura ohitura egokiak hartzea funtsezko baldintzak dira, eta, hortaz, hainbat gomendio eta errezeta eman zizkien oñatiarrak eskolako areto nagusian batutakoei.

### oharrak

#### KIROLAK

##### > Asteburuko kirol hitzorduak

Areto-futbola dago asteon. Bihar, 16:00etan, Ohorezko Ligako partidua jokatuko dute etxe-koek eta Gasteizko Zomorroek. Jarraian, 18:00etan, Euskal Ligako norgehiagoka egongo da: Eskoriatza Suitzako Armentiarrekin lehiatuko da.

#### ZERGAK

##### > Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar da

Aurtengo urteari dagokion trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea iritsi da. Zerga-ordainketa helbideratuta daukaten herritarrei maiatzaren 5ean egingo zaie kobrantza.

Ordainketa helbideratu barik dutenek, berriz, maiatzaren 5era arte dute borondatezko ordainketa egiteko.

#### ZINEMA

##### > 'Urrezko iparrorratza' bihar

Etzi, umeendako zinema dago Ibarraundin. *Urrezko iparrorratza* filma emango dute, 17:30ean.



## ORDUTEGI BERRIA

Asteleheneretik ostiralera  
(ordutegi jarraitua)  
**9:00etatik 20:30era**  
Larunbatetan  
**10:30etik 13:30era**  
**16:30etik 20:30era**

# Sukalde alemanak

## 3.290 eurotik aurrera



**beitia**  
living & home

>> Etxerako guztia

Paraguay kalea, 34 (Boulevard ondoan), Gasteiz | Tel.: 945 121 399 | 945 254 588 | Faxe: 945 206 022 | www.grupobeitia.com

GIZARTE ZERBITZUAK > BIDEBERRI MANKOMUNITATEA

# Berdintasunerako I. plana dagoeneko martxan da

Bideberri Mankomunitateak Elhuyar Aholkularitzaren eta Emakunderen laguntza izan du plana egiteko

**ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA**  
Bideberri Mankomunitateko Gobernu Juntak 2010eko otsailaren 25ean emakume eta gizonen berdintasunerako I. plana onartu zuen. Bideberri Mankomunitatea Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzaga herriek osatzen dute eta gizarte zerbitzuetan bakarrik oinarrituta dago.

Biztanle kopurua kontuan hartuta, ez dago plana egitera behartuta Antzuolako herria, baina Karmele Korta Gizarte Zerbitzuetako teknikariak azaldu du herritarrek gai horrekiko sensibilitate berezia dutelako erabaki zutela plana egitea. Plana egiten 2008an hasi ziren, egoeraren diagnostikoa eginda.



Neska-mutikoak udalekuetan; besteak beste, hezkuntza arloa landuko dute planean.

GOIENKARIA

**GIZARTEAREN ISLA**  
Diagnostikoa ikusi dute Antzuolako egoera beste herri batzuen modukoa dela. Gizartearen gertatzen diren ezberdintasun berak gertatzen dira Antzuolan ere.

Plana 2009an diseinatu zuten. Horretarako, hiru bilera egin zituzten Antzuolan; askotariko herritarrek elkartzu ziren eta, diagnostikoa oinarrituta, ekin-tzak proposatu zituzten. Orain,

lehentasunak ezarri behar dituzte ekin-tza horiek aurrera eramateko. Plana 2010-2013 urteetarako da eta hainbat arlo landuko dituzte: Udala, kultura eta kirola, hezkuntza, gizarteratzea...

## LEHIAKETA

### Argazkiak aurkezteko epea: apirilak 30

**A.E. > ANTZUOLA**  
Dagoeneko martxan da Antzuola eta antzuolarrak argazki lehiaketa. Hirugarren urtez jarraian egingo dute aipatutako lehiaketa, eta lanak apirilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira Antzuolako Udalean. Parte hartu ahal du herrian jaio edo bizi den edonork.

Argazkietan Antzuolak izan beharko du protagonista: Antzuolako ohiturak, jaiak, Antzuolako jendea, tokiak... azaldu beharko dira argazkietan. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztuko ditu; koloretan edo zuri-beltzean.

#### ARGAZKIEN EUSKARRIA

Argazkien euskarria 30x40 zentimetrokoa izango da, kartoi mehezkoa; eta, argazkiaren neurria, gehienez, 25x35 zentimetrokoa. Hiru kategoria egongo dira: 6-12 urte; 13-18 urte; eta, 19 urtetik gorakoak. Informazio gehiago, honako atarian: [www.antzuela.com](http://www.antzuela.com).

## KIROLA > FUTBOLA

### Bolada txarra eteteko Mutriku mendean hartu beharra dago

Bihar, egubakoitza, izango da partidua Estala futbol zelaian, arratsaldeko laurretan hasita

**A.E. > ANTZUOLA**  
Azken bolada txarra etetea izango da antzuolarraren eginbehar nagusia. Bolada txarra eten, eta ona hasi, jaitsiera postuetatik aldentzeko. Mutrikuren aurkako partidua bihar, egubakoitza, izango da Estala futbol zelaian, 16:00etan.

Sailkapen orokorrean bi taldeen arteko aldea bost puntukoak besterik ez da. Antzuolak 22 pun-

tu ditu eta Mutrikuk 27; hala, bihar irabaziz gero Antzuolak aukera ona dauka aurrekoekin aldea murriztu eta azkeneko postuetatik aldentzeko.

#### 24. JARDUNALDIA

Biharkoa 24. jardunaldia izango da. Martxoaren 27an jokatu dute gero, eta apirilaren 17an izango da hurrengoa, Aste Santuko oporren ostean.

## oharrak

#### AFARIA

##### > Haitiren aldeko afari solidarioa hilaren 27an

Anelkarrek antolatuta elkartasun afaria egingo dute hilaren 27an Olalde elkartearen. Txartelak salgai daude 25 eurotan Itzar liburu-dendan, Nerea drogerian eta Altzarte eta Martin okindegiaren; eskuratzeko azken eguna martxoaren 23a izango da.

#### HITZALDIA

##### > Rosa Aierbek Gipuzkoako armarrria aztertuko du

Hitzaldia martitzenean izango da Torresoroan, 18:30ean. Rosa Aierbek Gipuzkoako armarrria aztertuko du. Gaztelan izango da.

## bere ustez



Alaitz Jauregi

### Positibo ala negatibo?

**K**onturatu naiz, artikulu danetan kritikak eta kejak besteik ez ditxutela idatzi, eta badakizue zer? Hori dala bizitza hontan eitten dun okerra, daukun arazo danak pentsamentu negatibuegaitxik datozelako. Danai alde ona ikusi biharrian, beti txar dana ikusten jau, gehixau baloratzen dou negatibuan, positibuan baino. Akaso, hobeto bizi gara hola ala? Ba ez!

Konprobatau dao pertsona positibuak urte gehixauan bizi izaten diela, eta gainera

### "Zeaitxik ez du aldamenekua kritikau biharrian daukan ona baloratzen?"

urte horrek danetan zoriontsuauak diela. Hori da esaten dabena, behintzat.

Zeaitxik ez du aldamenekua kritikau biharrian daukan ona baloratzen? Eta harek zelako ondo in dabena esaten, eta beste honek zenbat lagun du nabena, eta honek zelako poza emuten dostan, eta haiba besarkada bat eta... Seguru-seguru egunak askoz hobiak izango ziela eta gero ta lagun gehixau euko ditxula, gauzak hobeto irtengo dozkuela, eta gero ta bizi hobia etorriko jakula!

Pentsau deigun ezer ein eta esan baino lehen; danok alkar entenditzen eta laguntzen saiatu biharko gara, eta norbere bizitza zela hobetu pentzatzen txepelkeixak alde batera lagata.

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

DEKORAZIOA  
**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK  
Jose Gomez Abad  
Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19  
INDUSTRI MANTENIMENDUA

**Arin Jatetxea**  
Karta • Plater konbinatuak  
Ogitartekoak • Pintxoak  
**ETXEKO BEREZITASUNAK:**  
Buztana eta txuleta  
(zaharrarena).  
Enkarguak ere hartzen ditugu.  
Astelehenetan eta martitzenetan itxita  
Kalebarren 7 • 943 78 62 45  
ANTZUOLA

JENDARTEA &gt; JAIK

# Jaietako batzordea hasi da gertatzen uztaileko San Martin jaiak

Aramaioko Udalak 32.000 euro bideratuko ditu jaietarako; hurrengo bilera martxoaren 29an egingo dute, udaletxean

EDU MENDIBIL &gt; ARAMAIO

Uztaileko San Martin jaiak begira Jai batzordeak lehen bilera egin zuen astelehenean udaletxean. Deialdiak espero baino erantzun eskasagoa izan zuen eta, hori dela eta, Ainara Inuntziaga Kultura zinegotziak eta Itxaso Aspiazu teknikariak dei egin diete herriko taldeei hurrengo bileran parte hartzera. Hain zuzen ere, martxoaren 29an egingo dute bigarren bilera, udaletxean, 19:00etan. Azken urteotan gertatu den moduan, herriko kultura taldeekin batera Jai batzordean ahalik eta partaidetza zabalena lortzea da Udaleko arduran duden asmoa.

San Martin jaiak uztaileko lehenbiziko bi asteburuetan ospatuko dira, uztailearen 2an, 3an, 4an eta 5ean batetik eta uztailearen 9an, 10ean eta 11n bestetik. Aramaioko Udalak 32.000 euro bideratuko ditu aurten San Martin jaietarako.

Iazko San Martin jaietan, besteak beste, rock kontzertuak, umeendako jolasak eta ikuskizunak, tortilla lehiaketa, *Txirritolinpiadak*, bertso saioak, koadri-



Herri kirolak, iazko San Martin jaietan.

JOSETXO ARANTZABAL

len arteko jolasak eta beste hainbat ekitaldi antolatu zituzten. Esan bezala, aurten ere Jai batzordean herritarren parte-hartzea ziurtatu nahi dute.

**ZAPATUAN, TXALAPARTA**

Bestalde, zapatuan, martxoaren 20an, gaztetxoei zuzendutako txa-

laparta tailerra izango da Txatxilipurdiko begiraleekin. Hitzordua da gazteen lokalean, 16:30ean. 12 urtetik gorako neska-mutilei zuzendutakoa da ekimena eta ez dago aurrez izena eman beharrik. Hurrengo hitzordua apirilaren 24an izango da (hankapaluak), ordu berean.

AISIALDIA &gt; ALAIK ELKARTEA

## Erretiratuen bidaia Galizia eta Portugalera apirilean

E.M. &gt; ARAMAIO

Alaiak elkarteak antolatuta, apirilaren 19tik 25era bitartean Galiziarra eta Portugalera bidaia egingo dute herriko erretiratuek.

Autobusean aterako dira Aramaiotik apirilaren 19an, goizez, eta Galizian Rias Baixasen hartuko dute ostatu. Egitarauaren arabera, besteak beste, Santiago, Coruña, Finisterre, Braga eta Oportora bisitaldiak egingo dituzte. Egun bateko bisitaldiak izango dira guztiak, iluntzero Rias

Baixaseko hotelera itzuliko baitira. Azken eguna libre izango dute bidaiariek.

**IZENEMATEA, ZABALIK**

Izenematea martxoaren 26ra arte dago zabalik. Lagun bakoitzeko prezioa 249 eurokoa da eta dagoeneko 33 lagunek eman dute izena. Antolatzaileak pozik dira jasotako erantzunarekin, kontuan izanda gainera lehen aldia dela horrelako bidaia bat antolatzen dutela. Interesatuek erretiratuen elkartera jo dezakete argibide gehiagoren eske.

&gt; BERTSOAK

### Bertso barnetegia antolatu dute gaztetxoendako Sarrian, apirilaren 6tik 8ra bitartean

9 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta, Zuiako Koadrilak eta Arabako Bertsozale Elkarteak bertso barnetegia antolatu dute Sarrian, apirilaren 6tik 8ra. Jolasak, bertso-antzerkia, kantaldiak eta bestelakoak izango dituzte. Prezioa, 40 euro. Izenematea, martxoaren 25era arte zabalik. Argibideak 945 01 05 05 zenbakian.

&gt; LEHIAKETA

### Txirritolak antolatutako ipuin lehiaketarako lanak martxoaren 26ra arte jasoko dituzte

Txirritola euskara elkarteak ipuin lehiaketa deitu du. Aramaion bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte eta adinaren arabera hainbat talde bereiztuko dituzte. Lanak entregatzeko epea martxoaren 26ra arte dago zabalik. Argibide gehiago Txirritola euskara elkartearen, 943 79 94 21 telefonoan jaso ditzakezue.

&gt; INTERNET

### Aitor Madrid arduraduna izango da astelehenean KZgunean; ikastaro berriak iragarri dituzte

Aitor Madrid martxoaren 22an izango da KZgunean, 16:00etatik 20:00etara. Ikastaro berriak iragarri dituzte; besteak beste, sare sozialen, *Skype* eta *Google* tresnen gainekoa. Ona txartela eskuratzeko aukera ere badago; NA eta osasun txartelak eguneratuta eramatea ezinbestekoa da. Argibideak, 945 44 54 36 zenbakian.

Gure seme-alabek ikusten dutena egiten dute: gurasook erdaraz egiten badugu, horixe da eredua beraiantzat...



ARAMAIOKO UDALA  
Euskara saila





Joan den urtean, 13. urteurrenaren harira antolatutako bazkaria.

JOSETXO ARANTZABAL

JENDARTEA > GAZTEAK

## Gertu dituzte gaztetxean urteurreneko ekimenak

Besteak beste, bideo emanaldiak, Intxortara igoera eta herri bazkaria dituzte

MIRIAN BITERI > ELGETA

Elgetako gaztetxearen 14. urteurrenaren harira, ekimenez josita-ko egitaraua gertatu dute datozen egunotarako. Ekimenak bihar hasiko dira. Eguerdian, *Tren lasterra Val di Sussan* bideo emanal-

dia dago gaztetxean; hori amaitzean, aperitiboa izango dute, eta jarraian, Abiadura Handiko Trenaren gaineko bideo emanaldia eta mahai-ingurua egingo dute.

INTXORTARA IGOERA

Hori egubakoitzari dagokionez. Baina, egun potoloena zapatua izango da. 09:00etako esna deia-oren ostean, 10:00etan, Intxortara igoera hasiko da. Gaztetxeko kide Kepa de Vegak azaldu digu lehen jaietan egiten zen ekimen

hori berreskuratu nahi izan dutela. Horretarako izenematea ordu laurden lehenago zabalduko da plazan; 09:45ean, hain justu ere.

Eguerdia berri batera, triki eta bertso potearen ordua iritsiko da. 14:00etan, berriz, bazkaria izango dute gertu gaztetxean. Hona hemen han jango dutena: pasta entsalada, solomoa piperrekin eta postrea. Bazkalosteko bertso saioarekin eta gaueko Akerbeltz taldearen dantzaldia-ekin amaituko da eguna.

### frontenis txapelketa

#### Asteburuan ez da partidurik egongo

Asteon ez dago partidurik. Azken jardunaldia jokatzeko falta da finalerdietarako. Gizonetakoetan bi bikote sailkatuta daude; besteak azken jardunalditik aterako dira.

AZKEN EMAITZAK

1. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Asier Untzetabarrenetxea-Asier Morales	25-10
2. Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna	25-20
3. Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Sergio Bouzas-Mikel Arkarazo	25-07
4. Nagore Ojanguren-Leire Urgoitia/Susana Jimenez-Olaia Jimenez	25-09

LEINTZ GATZAGA > ERREPIDEA

## Dagoeneko martxan daude semaforoak

Bukatu dituzte lehenengo zundaketa lanak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Aldundiko Errepide Sailak martxan jarri ditu Gatzagako bi sarretan dauden semaforoak. Orain

arte, hilabete inguru, laranja kolorea izan dute, kontuz pasatzeko adieraziz, baina egubakoitza ezkerreko beste edozein semafo-

roren moduan egiten dute lan, gorri eta berde jarrira. Hala bada, txandaka pasatzen dira orain autoak herri ingurutik, norabide bakarrean. Hilabeteko proba egin gura zuela adierazi zuen Aldundia, baina Udalari ez diote jakinarazi zenbat denboran izango dituzten martxan.

Herriko bide sarreretako segurtasuna hobetzeko eskatu zion Udalak Diputazioari, autoek sartu-irtenak seguruago egiteko, eta eskaera horretatik etorri dira jarritako hiru semaforoak.

LEHENENGO FASEA BUKATU DA

Bestalde, bukatu dituzte herrian egiten zebiltzan zundaketa-lanak. Herriko hainbat tokitan hodi luzeak sartu dituzte laginak hartzeko. Zuloak egindako lekuetan arketak jarri dituzte orain, eta lehen faseko lanak bukatutzat eman. Herria mugitu egiten den edo ez jakiteko hasi da laginak hartzen Aldundia. Udalak uste du jarraipena egingo dietela lanei eta hilabete batzuk barru beste lagin batzuk hartu, baina ez dute inolako jakinarazpenik jaso.

HIRIGINTZA > LANAK

## Asentzioko bidea itxita gaurtik astelehenera arte

Ingurune horretako egokitze lanekin asteon amaituko du Mendilankor enpresak

M.B. > ELGETA

Asentzio parkeko bidea itxita egongo da gaur eguerditik astelehen goizera. Oxel Erostarbe alkatearen esanetan, arrazoia da berri-itu bide bidea egonkortzeko komeni dela hainbat egunetan ibilgailurik ez pasatzea handik. Horrekin batera, azaldu digu ingurune horretako lanak aste honetan bertan bukatuko dituztela.

ATZERAPENA

Erostarbek onartu du eguraldia eta abenduan izandako txikizioak direla-eta, obra horiek nahi baino gehiago luzatu direla. Irailean hasi zituzten Mendilankor kooperatibako langileek.

Baina asteon amaituko dituzte horiek eta herritarrek ingurune berrituaz gozatu ahal izango dute hemendik aurrera. Egokitze lanen horien harira, *Intxortako Atea*-ren parean eta Angiozerrako bidegurutzan 50 aparkaleku jartzeaz gain, ermitarainoko bidegorria egin dute, eta komunak eta eserleku berriak jarri dituzte.



Asentzion, eguazten eguerdian lanean.

MIRIAN BITERI

DIPUTAZIOA > BISITA

## Markel Olanok herria bisitatuko du hilaren 22an

M.B. > ELGETA

Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok izango da Elgetan astelehenera, martxoak 22. Eguerdian, 12:30ean, iritsiko da herrira, eta jarraian, udal ordezkariak harrera egingo diote udaletxean.

SAIHESBIDEA ETA PATRONATUA

Oxel Erostarbe alkateak jakinarazi digu batzarra ere egingo dutela eta Udalaren asmoa

dela saihesbidearen eta Domingo Iturbe patronatuaren gaiak mahai gaineratzea. Bisita amaitu baino lehen, herrian ibiliko dira esku artean dituzten eta etorkizunerako aurreikusita dituzten proiektuen berri jasotzeko.

Urteroko bisita da Olanoren; herriz herri dabil Gipuzkoaren errealitatea ezagutzen eta Foru Aldundia herri eta eskualde horietan egiten ari den kudeaketa azaltzen.

**Aperribay, s.l.**

Marmoldegi  
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

**20690 ELGETA**



Mendizabal eta Onsalo, martitzeneko jaialdiko bigarren norgehiagokan, epaileekin batera.

XABIER URTZELAI

PILOTA &gt; BERGARAKO LAU T'ERDIKO SORALUCE KOOP. SARIA

## Martitzeneko finalean Onsalo eta Yoldi izango dira aurrez aurre

Mendizabal eta Larrañaga lehiatuko dira hirugarren postuagatik

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Martitzeneko jaialdia biribila izan zen, Mendizabal antzuolarrera finalera sailkatu ez izana izan zen pena bakarra. Puntako jaialdi baten osagai guztiak izan zituen: jende asko pilotalekuan, partidu oso lehiatsuak eta telebista kamerak jaialdia jarraitzen –Gaur, eguna 18:00etan emango du GOITBk partiduok, eta datorren martitzeneko fina-

letan ere izango dira telebista kamerak–.

Aurreratu moduan, baina, oraindik finalak geratzen dira, hilaren 23an jokatu dituztenak (19:30).

### MEREZIMENDU OSOZ

Martitzeneko partiduetan onenak izan zirenak egongo dira finalean, Yoldi eta Onsalo. Larrañagaren kontra Yoldik partiduaren lehen

zatia erraz egin zuen, errazegi (12-2), eta ondoren etorri zen Larrañagaren erreazioa (17-17). Markagailuan atetik aurrera etorritako zaleak berehala jarri ziren Larrañagaren alde, baina partidu hasieran egindako opariak –Yoldik min egin zion sakez– garesti ordaindu zituen partidu amaieran.

Sakez makal ibili zena Mendizabal izan zen, arratsaldeko bigarren partiduan. Onsalok ez zuen

batere sufritu Antzuolakoaren lehen kolpearekin, eta alderantziz, Onsalok hainbat tanto egin zituen pilota jokoan jarri eta berehala, sakea hormara ondo arrimatu. Eta hori Mendizabal ondo hasi zela (5-0), egin behar zuen horretan kontzentratuta. Onsalo, baina, poliki-poliki partiduan sartzen joan zen, eta norgehiagoka parekatu (7-7) eta jarraian bolada onari heldu zion, Antzuolakoaren opariren bat aprobetxatu, eta baita merituzko tantoak eginez ere (7-14).

Mendizabalek ez zuen amore eman, eta txokoan utzitako bi dejadak (10-14koa, eta 13-15koa) grabatzekoak izan ziren. 14-16koa, berriz, fisikoki lehertzeko modukoa izan zen, batera eta bestera ibili zirelako bi pilotariak; hala, Antzuolakoak azken pilotakadak erabat hustuta erantzun zituen, Onsalok tantoa egin zuen arte (14-16). Aitorrek 15.a ere egin zuen, baina ordurako neka-neka egin da zegoen, Onsalo pilotakada gaiztoenak ere erantzuteko gauza izan zelako (15-22).

### FUTBOLA

## Bergarak bihar eta Aloñak domekan

Aretxabaletak eta Mondrak kanpoan jokatuko dute asteburuan

X.U. &gt; BERGARA

Hirugarren mailan Aretxabaletak Beasainen zelaian jokatu du. Joan den astean Gernikaren kontra puntu bat batu zuten atxabaltarrek; zapatuan ezustea eman nahi dute Loinaz futbol zelaian (17:00).

Ohorezko erregionalean aste ezohikoa izango da, elurteagatik atzeratutako norgehiagokak jokatu dituzte eta. Mondrak martitzenean galdu zuen Tolosaren kontra (1-2), eta Aloña Mendik atzo iluntzean jokatu behar zuen Euskaldunaren kontra. Bergarak, azkenik, egubakoitz arratsaldean hartuko du Trintxerpe Agorrosinen (16:30).

### ASTEBURIAN ALOÑAK ETXEAN

Aloña Mendik jokatu du etxean (Domeka, 16:30, Azkoagain). Mondra Idiazabalera joango da domekan (16:30), eta Bergarakoek Berion jokatu du domekan (16:30).

### TOLOSAREN KONTRA GALDU

Martitzenean amorruta ematen duen porrot horietakoa izan zuen Mondrak, Arrasateko mutilek mendean izan zutelako Tolosa, baina defentsan izandako despistek ondo aprobetxatu zituztelako tolosarrek.

ZIKLISMOA &gt; GORLAKO IGOERA ETA UZARRAGAKO IGOERA

## Amateur mailako ziklista onenak bihar Bergaran

Gazte mailako ziklistak, berriz, Antzuolan lehiatuko dira zapatuan, Uzarragako Igoeran

X.U. &gt; BERGARA

San Jose eguna aprobetxatuko dute bihar, egubakoitza, 23 urtez azpikoen egutegiko lasterketa garrantzitsuenetakoa korritzeko, Gorlako Igoera. 10:00etan hasita –Bergarako plazan– ziklistek 90 kilometroko lasterketa izango dute aurrean, eta ibilbideari dagokionez ez da aldaketarik izango: lehenengo kilometroetan Osintxuraino jaitsiko dira (10:10), handik buelta erdi eman eta Zubillagaraino igotzeko (10:34). Bergarara buelta, eta Gorlara lehenengo igoera (11:00). Handik Urola bailarara jaitsiko dira, Urretxutik

Antzuolara (11:56), Deskargatik pasatuz. Eta azken errematea, Gorlako bigarren igoera (12:10). Ibarrean Asier Penabad (Bidelan Kirolgi), Iban Caballero (Debabarrena) eta Xabier Arantzeta (Debabarrena) dabilta kategorian horretan, eta azken ordukorik ez bada go irteera puntuan izango dira.

### UZARRAGAKO IGOERA, ZAPATUAN

Bestalde, Aia taldetik antolatuta gazte mailako Uzarragako 35. Igoera egingo dute zapatuan (16:00) Antzuolan. Orlanen hasiko dute proba eta ziklistek 81 kilometro izango dituzte aurrean.



Mikel Landa, iaz, Gorlako helmugan lehena.

GOIENKARIA

&gt; SASKIBALOA

## Muk etxean eta Aloñak eta Eskoriatzak kanpoan

Mondragon Unibertsitateak etxean jokatu du zapatuan (18:00) Promociones Legarcia taldearen kontra.

Maila autonomikoan, berriz, Aloña Mendiko mutilek sailkapenean azkenaurreko postuan dagoen Deustuko Unibertsitatearen kantxan jokatu du domeka eguerdian. Bi talde horien artean dagoen alde agerikoa da: bizkaitarrek lau partidu irabazi dituzte eta 17 oñatiarrek.

Emakumezkoan, berriz, Eskoriatzako neskek oraingo asteburuan ere etxetik kanpora jokatu du dute, Bera Beraren kontra Donostian, zapatuan (20:00). Talde donostiarra atzerago dago sailkapenean, eta hirugarren dago Eskoriatza.



> **THE WET BAND**  
Danbakako irabazleek diskoa aurkeztuko dute zuzenekoan > 22



> **ANTZERKIA**  
Umeendako 'Artea' antzezlanaren egingo dute zapatuan Arrasaten > 22

> **OIHANE PILDAIN**  
Arrasatearra da, baina Eskoriatzako saskibaloitaldean dihardu azken sei urteotan; musikazale handia ere bada > 25



Hamlet taldea osatzen duen boskotea gogotsu igoko da 3 aretoko agertokira. Jose Molinero taldeko abeslaria -J. Molly ezizenez ezaguna- (erdian) izango da emanaldia gidatuko duena.

GOIENKARIA

## Hamlet-en zuzenekoak 3 aretoa astinduko du etzi, 23:00etan

**AZKEN DISKOAREKIN**  
Taldea madrildarrak 'La puta y el diablo' diskoa aurkeztuko du gurean

**METAL LANDUA**  
Boskoteak metal landua beste estilo batzuekin uztartzen du

**JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE**  
Aste bukaera luze honetan ere Arrasateko 3 aretoak ez du deskanturik hartuko. Zapatuan, gainera, talde mitiko bat ekarriko dute gurera; Espainiako heavy metalaren talde ezagunenetakoa bat den Madrilgo Hamlet taldea, hain zuzen. Ibilbide luzea egin du taldeak, eta 1987an jotzen hasi ziren arren, eurek 1993an kokatzen du hasiera urte ofiziala. Orduetik, aldaketa asko izan dituzte taldean: dagoeneko Javier Gomez eta

Pedro Sanchez baxu-jotzaile ohiak, Javier Rocaverti eta Pablo Gianni bateria-jotzaile ohiak eta Pedro Sanchez gitarra-jotzaile ohiaren historiako izenak dira. Aldaketak aldaketa, baina, Hamlet-ek ez du bere esentzia galdu. Orain, Jose Molinero abeslariaren -J. Molly ezizenez ezaguna- gidaritzapean, Luis Tarraga eta Alberto Martin gitarra-jotzaileak, Alvaro Tenorio baxu-jotzailea eta Paco Sanchez bateria-jotzailea dira lekukoa hartu dutenak. Ondo hartuta, gainera.

**ESTILOEN ARTEKO BILAKAERA**  
Doinu gogorak, erritmo azkarrak eta eszenaratze basatia; horrela defini daiteke boskote madrildarra. Hala ere, 17 urteotan nabarmen heldu dira musikalki, eta atera dituzten diskoetan hard rocka -hasierako urteetan-, metal alternatiboa, hardcore-punka eta rap-metal doinuak atzeman daitezke.

Arrasateko 3 aretora *La puta y el diablo*-2009ko apirilean kaleratu zuten- izeneko azken disko-

arekin datoz. Emanaldia, aretoaren ohitura bihurtu denez, 23:00etan hasiko da. Sarrera aurrez 12 euro ordaindu beharko da eta leihatilan, berriz, 15 euro.

**INFERNOISE, GONBIDATU BIKAINA**  
Hamlet ez da gauerdia ondo sartu arte hasiko, aurretik Infernoise taldeak joko du-eta. Gonbidatu bikaina da, talde protagonistare-

kin harreman estua du; batera biran datoz. Estilo aldetik, antzeko izango da: erritmo azkarrak eta *egurra*. Finean, tximak ondo astintzeko gaua izango da etziko.

DISKOA

### 'La puta y el diablo', sustraietara itzulera

Hamlet-en ibilbidea 1993an hasi zen, hori hartu dute hasiera urte moduan; 2008an 15. urteurreneko bira egin zuten. Lehen diskoa *Sanatorio de muñecos* izan zen, 1994an argitaratua. Eta orduetik, estudioko 11 disko grabatu dituzte; azkena, iaz kaleratu zuten *La puta y el diablo*. Disko horrekin datoz, hain zuzen, Arrasatera. Alberto Martin gitarra-jotzaile berriarekin atera duten disko bakarra da eta lan horrekin taldearen sustraietara bueltatu direla esan daiteke. Hori bai, hasierako urteetan baino disko landuagoa da teknikoki, baina ahotsaren oldarkotasunak eta bateriak ezarritako erritmo azkarrek lehen diskoa dakarte gogora.

Hitzetan agonia, sufrimendua eta gorrotoa atzeman daiteke. Bestalde, abesteko eran eta gitarraren soinuan ildo berriak bilatu dituzte, baita aurkitu ere. Diskoa aurkezteko bira AEBetan eta European egin zuten.



Azken diskoaren azala. GOIENKARIA

KUXKUXEROA

### Abeslaria eta Pilar Rubio, bikotekideak

Hamlet zuzenean ikusteko aukera izateaz gain, Espainiako prentsa arrosean albiste garrantzitsua izan den bitxikeria bat ere badu talde mitikoaren bitxitak. Izan ere, Hamlet-eko abeslari eta *frontman* den Jose Molinero -J. Molly ezizenez ezaguna- eta Pilar Rubio bikotekideak dira.

Espainiako La Sexta telebista kateko *Se lo que hicisteis* saioan egin zen ospetsu aurkezle madrildarra eta egun Telecincon dihardu. Dirudenez, zortzi urte daramate elkarrekin. Nork daki, agian Pilar Rubio bera ere etorriko da 3 aretora, mutil-lagunaren kontzertua ikustera...

MUSIKA &gt; KONTZERTUA

## Diskoa aterata, The Wet Band taldeak agertokia du helburu

Bihar Arrasateko 3 aretoan izango dira mutrikuarrak, Uek eta Kraussk taldeekin batera egingo duten kontzertu birako lehen kontzertuan

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE  
2008ko Danbaka musika lehiaketa irabazi zuen The Wet Band talde mutrikuarrak *Waterproof* izeneko diskoa kaleratu berri du, doan, hori zen-eta Danbakako onena izatearen saria. 12 kanta jaso dituzte diskoan eta estilo aniztasuna da mutrikuarren lanaren zeinu bereizgarria: rocka oinarri hartuta, 1970eko hamarkadako hard rockerako joera garbia erakusten dute, baina ukitu latinoak, funka edo estonerra ez dira falta.

Bada, jarraitzaile eta musikazaleei doinu berriak zuzenean ezagutarazteko ordua da orain, eta horretan jo eta ke arituko da The Wet Band. Izan ere, datozen asteetarako hainbat kon-



The Wet Band-eko abeslari Ainara Etxearte, Danbakako finalean.

GOIENKARIA

tzertu lotuta dituzte Uek eta Kraussk taldeekin batera. Hau da, kontzertu bira bat antolatu dute hiru taldeek: *Bidean Basque Wild tour 2010* bataiatu dute. Biraren izenak berak dioenez, Euskal Herrian barrena izango da kontzertu bira. Hala, birako lehen emanaldia bihar bertan emango dute, Arrasateko 3 aretoan (23:00). Sarrera sei euro ordaindu beharko da.

### BIDELAGUN BIKAINAK

The Wet Band-ek, esandako moduan, bidelagun perfektuak izango ditu: Uek eta Kraussk. Keu Agirretxea gidari, hamar urte bete dituen Uek talde ondarrutarak badu zer ospatu eta hori agertokian igarriko da. Kraussken metalak ere ez du aspertzeko astirik utziko. Ekainera arte, behintzat, ia aste bukaera guztietan lotuta dituzte kontzertuak.

ANTZERKIA

## Umeendako 'Artea' obra ikusgai etzi Amaian

La Maquine antzerki taldearen antzezlanaren 17:00etan hasiko da; sarrera, lau euro

J.B. &gt; ARRASATE

Haur antzerkia izango da protagonista Arrasateko Amaia antzokian zapatuan (17:00): La Maquine antzerki taldearen *Artea* obra ikusi ahal da. Natura du ardatz eta irudimenez jositako obra honekin txundituta geratuko dira etxeko txikiak. Alvaro Guijarrok egindako musika, zuzenean Daniel Tarridak eta Morten Jespersenek jotzen dutenean obraren ezinbesteko elementu bihurtzen da, musika da-eta "haizearen, euriaren, elurraren... berba". Bestalde, Maite Arrese kontalariaren ahotzak ere berebiziko pisua hartzen du, Elisa Ramos eta Jose Rodriguez aktoreen interpretazioa ahaztu barik. Euskaraz da eta 45 minutu iraungo du. Lau urte-tik gorakoei dago zuzenduta.

EUSKAL KANTUGINTZA

## Kantu jaialdiaren balorazio positiboa

Bailaratik 40 bat ikasle joan ziren Gipuzkoako haur kantarien jaialdira

J.B. &gt; BERGARA

Euskal kantuak sustatu eta plazaratzea helburu, Gipuzkoako haur kantarien jaialdia ospatu zen joan den domekan Urretxuko Labeaga aretoan. Eta, noski, Debagoieneko ordezkariak ez zuten hutsik egin. Bergarako eta Arrasateko neska-mutikoei hartu zuten parte, eta Bergara izan zen, zalantza barik, ordezkari gehien eroan zituen. Izan ere, Bergarako 39 haur izan ziren jaialdian; Musika Eskolako haurren abesbatzako zortzi talde, hain zuzen. "Ekimenak arrakasta handia izan du eta esperientzia ezin hobea izan da neska-mutikoendako", esan dute eskolako arduradunek.

Goikobalu Txikitik bi neska eta mutil bat izan ziren, trikiti taldea ondoan zutela.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2  
T: 943 76 03 35

#### LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A  
T: 943 79 98 86  
F: 943 77 01 08  
altu-lasa@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.  
T: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

#### AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1  
T: 943 76 03 50

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3  
T/F: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
T: 943 71 25 49  
F: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

#### TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
T: 943 76 90 83

#### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
T: 943 71 21 12  
F: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

#### JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4  
T: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartera esk.  
T: 943 79 51 25  
F: 943 71 19 85  
uribesalgo@telefonica.net

### PROKURADOREAK

#### JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma  
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49



## Bergarako lau t'erdiko Soraluce Koop. finala

**Onsalo eta Yoldi**  
Eguaztenean, martxoak 24, 22:15ean.

Babesleak:




**BOLINTXO**  
OKINTEGIA

■■■■■■■■■■  
GOKI ERREFORMAK, S.L.  
■■■■■■■■■■

**Goitb**  
Goiena Telebista  
*Ikustekoa!*

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROTZEGIAK

### AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

## ELEKTRIZITATEA

### AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

### ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

## FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estruktura eta urbanizazioak
- Kontratak

- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

## DEKORAZIOA

### J. ORTIZ

Bergara

- Mota guztietako pladur lanak
- Igeltsu-lanen dekorazioa
- Sabai eta apaletan espezialistak
- Isolamendu akustikoa
- Gremioen koordinazioa

Alkabieta kalea z/g.

T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

## ITURGINTZA

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

### IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak

Kale Txiki 9 behea

Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

## OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

## VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 17 80 46

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIK

Arrasate

- PVC leihoak
- Aluminio termikoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak

Zigarrola 1- 8 pab.

Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

## ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia

Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia

T: 943 79 11 35

F: 943 77 31 20

## YOSU THERMIK

Arrasate

- Lehieta eta ate isolatzaileak
- PVC leihoak
- Aluminio termikoko leihoak
- Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)

Kataide poligonoa 4 Pab.

Tel: 943 77 01 57

F: 943 77 03 21

## LOREZAITZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Oihane Pildain > Saskibaloia jokalaria

# "Saskibaloian jokatzera garrantzitsua da niretako, gauza asko eman dizkit-eta"

Kirola gogoko du Oihane Pildain arrasatearrak. Eskoriatza KE saskibaloia taldean jokatzeko orain dela sei urtetik, eta aurretik hainbat kirol egin ditu. Kirolaz gain, musika ere atsegin du arrasatearrak, eta klarineta eta trikitia jotzen daki. Hala ere, denbora faltak eragin dio instrumentuak alde batera uztea. Horrez gain, batxilerra egiten dihardu.

NAROA ODRIOZOLA > ARRASATE

Denbora faltak hainbat gauza alde batera uztea eragin dio Oihane Pildaini. Eta unibertsitatean hasten denean saskibaloiarekin gauza bera gertatuko zaiola onartzen du, atsekabez, arrasatearrak. Izan ere, saskibaloia esanahi handia du harentzat. Entrenatzen hasi aurretik tartetxo bat egin digu.

**Noiztik jokatzeko duzu saskibaloian?**

Orain dela sei urtetik, gutxi gorabehera. Eskoriatza KE taldean jokatzeko dut. Hasi nintzen infantil moduan Arrasaten eta gero kadete mailan Eskoriatzara etorri ginen.

**Zergatik saskibaloia?**

Helburu bat duten kirolak gustatzen zaizkit, eta, saskibaloia kasuan, saskian sartu behar duzu baloia. Horrez gain, saskibaloian jokatzeko zuten lagun batekin udalekuekara joan nintzen eta hark bultzatu ninduen saskibaloian jokatzera. Eta futbola aukeratu beharrean, saskibaloia aukeratu nuen.

**Zer moduz zabiltzate aurretik denboraldian?**

Ez gabilta oso ondo, nahiko zaila jarri zaigulako aurretik, baina gustura gabilta. Ahal den puntu gehien sartzen ahalegintzen gara.

**Ordu asko eskaintzen dizkiozu saskibaloari?**

Gehiago eskaintzea gustatuko litzaidake. Martitzen eta egubakoitzetan ordu eta erdiko entrenamenduak izaten ditugu. Uste dut edozein kiroleretan emaitza onak edukitzeko ordu batzuk sartu behar direla. Batzuetan, entrenatzeko Eskoriatzaraino joan beharra dudanean, alferkeria etortzen zait; izan ere, kadetetik seniorerara arteko nesken taldeak Eskoriatzan entrenatzen gara, eta mutilen taldeak, Arrasaten.

**Zer ematen dizu saskibaloia?**

Lehenengo eta behin, lagunak. Talde baten parte sentitzea oso polita da. Jende asko ezagutzen da eta Eskoriatza KE klubeko talde guztiak elkartzen garenean, familia baten antzekoak gara; bazkariak egiten ditugu, oso ondo zaintzen gaituzte, autobusa daukagu leku batetik bestera mugitzeko, eta hori talde guztiak ez dute, entrenatzaileekin oso harreman ona daukagu... Eta gero, osasuna. Niretako, saskibaloian jokatzera asko da.



**Taldeko kirolen alde on eta txar bat?**

Gauza txarren aldetik, honakoak esango nituzke: zerbait gaizki irteten bada, errua denontzako dela. Gainera, nire albokoak egun txar bat badu, nik ere edukiko dut, eta besteak, eta besteak ere bai. Eragina dauka guztiak. Gauza onei dagokienez, berdina esango nuke: gauza bat ondo irteten bada, denon artean egindako zerbait dela eta denei poztasuna ematen digula. Horrez gain, taldeko kirolak bakarkako kirolak bezain konpetitiboak ez direla esango nuke.

**Nola ikusten dituzu nesken taldeak?**

Geroz eta hobeto ikusten ditut, geroz eta erraztasun gehiago ditugulako hemen eta beste leku batzuetan jokatzeko. Gure inportantzia gabilta hartzen, baina, hala ere, neskek Eskoriatzan jokatzera eta mutilek Arrasaten ez dut ondo ikusten.

**Horrez gain, klarineta eta trikitia jotzen dakizu.**

Trikitia hirugarren mailan hasi nintzen jotzen, eta klarineta, bosgarren mailan. Azkenean hau nire musika irakaslea Marije Ugalde zelako hasi nintzen jotzen ikasten, baina denbora faltagatik utzi egin nuen. Orain, trikitia jotzen dut noizbehinka.

**Ikasketei dagokienez, zer diharduzu ikasten?**


Arrasateko institutuan nago batxiler zientifikoko bigarren maila egiten. Teknologia ez nuen egin nahi, eta horregatik aukeratu nuen batxiler mota hori.

**Hori bukatzean, zein asmo daukazu?**

Oraindik ez daukat argi. Alde batetik, Psikologia asko gustatzen zait baina, beste aldetik, Biologia ikasi nahiko nuke. Hala ere, ikasten dudana ikasten dudala ere, irakaskuntzara bideratu nahi ditut ikasketak. Hau da, irakasle lan egitea gustatuko litzaidake. Bilbora edo Donostiara joateko asmoa daukat; eta, Euskal Herritik kanpo joaten banaiz, penarekin joango naiz, baina egin beharreko gauza bat da.

**Beste zaletasunik badaukazu?**

Irakurtzea asko gustatzen zait eta musika entzutea ere gogoko dut. Kirolei dagokienez, korrika egitea eta igeriketa gustatzen zaizkit.



NAROA ODRIOZOLA

PERSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 17 urte. **Ikasketak:** Batxiler zientifikoko bigarren maila egiten dihardut Arrasateko institutuan. **Zaletasunak:** Saskibaloian jokatzera, irakurtzea, musika entzutea, korrika egitea... **Gustuko liburu bat:** *A place called here*, Cece-

lia Ahernena. **Film gomendagarri bat:** Nick Cassavetes-en *El diario de Noa*. **Musika talde bat:** The Corrs. **Bizi izateko leku bat:** Zarautz. **Bizitzako leloa:** *Bizi ezazu bizitza*. **Saskibaloia jokalaria bat:** Nire taldeko Maialen Calderon.

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariek, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (koxbe birezta-ko lekua. 667-88 23 38.

**Antzuola.** Sagasti auzoan 90 metro karratuko etxebizitza salgai edo errentan. Hiru logela, bi bainugela, bi balkoi, sukaldea, egongela eta despentsa. Igozailu eta garaje itxiarekin. Jantzita. Deitu 687 11 07 21 edo 617 00 37 30 telefono zenbakietara.

**Aretxabaleta.** 72 metroko etxebizitza salgai erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekuarekin. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

**Arrasate.** Zarugalde kalean 89 metro koadroko etxebizitza salgai, 24 metro koadroko garajearekin. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bi komun. Deitu 943 77 13 91 telefonora.

**Azkoitia.** Azkoitia pisua salgai 2 logela, sukaldea, sala, komuna, berogailua, gasa, aluminiozko leihoak eta ganbara. Dena berritua eta altzariek, prezioa 145.000 euro. Deitu 665 73 51 11 zenbakira.

**Azpeitia.** Azpeitiko Salbe auzoan. Aukerako pisua. 37 milioi. Negoziagarriak. Berogailua gas bitartez. 3 logela bikoitz (bere armarioekin), sukaldea (bere altzari eta elektrogailuekin, sala eta komuna. 94 m<sup>2</sup>. Gela guztiak kanpoaldera. Logela nagusia eta beste bat altzariek hornituta daude. Igozailu jarri berria. Pisu eguzkitsua, bsitak bidegorri aldera aldera. PVCKo leihoak, arotz lanak haritzean. Deitu 656 31 60 31 telefono zenbakira.

**Azpeitia.** Etxebizitza salgai Azpeitin. 90 m<sup>2</sup>. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainua eta trasteroa. Dena kanpoaldera. Deitu 649 07 34 42 zenbakira.

**Berriatua.** Etxebizitza salgai edo alokatzen Berriatuan. 72 metro karratu. Bi logela, komuna eta sukalde-egongela. Berriztatua eta guztiz jantzita hartzeko aukera. Salmenta prezioa, 190.000 euro. Deitu 94 616 64 19 edo 94 613 90 56 telefono zenbakira.

**Casalzarreina (Errioxa).** Pisua salgai Errioxan, Casalarreinan. 20 m<sup>2</sup>-ko. 615-78 98 59

**Durango.** Pisua Madalena auzoan. Guztiz berriztatua, duela 5 urte. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Oso eguzkitsua. Guztiz jantzita. Deitu 655 70 96 59 zenbakira.

**Durango.** Etxea salgai. Deitu 696 66 00 58 telefono zenbakira edo idatzi mezua bat [kattalin4@hotmail.com](mailto:kattalin4@hotmail.com) e-postara.

**Durango.** Atiko bat salgai Durangoko alde zaharrean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua. Duela urte bete erabat berriztatua. Guztiz jantzita. Bizitzeko jartzeko. Etorri ikustera! Ainara Otxotorena. Deitu 659 42 58 90 telefonora. [otxotorena@yahoo.es](mailto:otxotorena@yahoo.es)

**Elorrio.** Pisu eder bat salgai. Auzoa etorbidean. 639 02 05 81

**Elorrio.** Pisu eder bat salgai Elorrioren. Erreformatua. 124 m<sup>2</sup>, gas naturaleko berogailua, sukalde ekipatua, egongela, 5 logela, 2 komun, jakitokia, 2 balkoi, garaje itxia. Derrigorrezkoa ikustea. Prezioa: 264.500 euro. Telefonoa: 685 73 48 25

**Etxarri Aranatz.** Familiabakarra salgai Etxarri Aranazko Kalamurtxet kaleko 20. zenbakian. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Bi balkoiatik mendia ikusten da. Autoa sartzeko bajera eta lorategia. Prezioa adosteko. 645 73 50 59 (Maite).

**Etxarri Aranatz.** Etxarri Aranazko Arkuetabide kalean, lehen ezkerrean. 98 m<sup>2</sup> eta oso orientazio ona. 696 19 43 17 edo 626 70 30 93.

**Mallabia.** Baserrira salgai toki polit batean 20.000 metroko lur zatirekin. Deitu 655 70 26 47 telefono zenbakira

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

# 943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com  
<http://www.goiena.net/sailkatuak>

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**  
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.  
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Oñati.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai plaza 100 metroa. Sukaldea, egongela, lau logela eta komuna. 240.000 euro. Deitu 687 32 99 57 edo 636 32 62 97 telefono zenbakietara.

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela-egongela eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 euro. 35 metro koadroko garaje eta trasteleku, aukerakoak, 66.000 euro. 659 72 06 64

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, komuna, egongela eta trasteleku argi patioan. Igozailuarekin. Jantzita. 240.000 euro. Deitu 652 70 12 49 telefonora.

**Oñati.** 85 metro karratuko etxebizitza salgai Obispo Otadui 13an. Hiru logela, sukaldea, egongela, komuna, trasteleku, 49 metro koadroko garajea. Deitu 659 05 11 57 edo 630 52 17 89 telefono zenbakietara.

**Oñati.** Kale Barrian etxe berria salgai. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Prezio interesgarria. Deitu 665 73 96 51 zenbakira.

**Otxandio.** Pisua salgai dago. Ikuspegi zoragarria dauka Anboto mendi aldera. 90m<sup>2</sup> era-bilgarri. 4 logela, egongela, sukaldea, komuna, trasteleku eta balkoia. Tasatutako prezioan. 675 90 52 27.

**Zaldibar.** Pisua salgai 75m<sup>2</sup>. 3 gela, egongela eta ganbara. Prezioa: 170.000 euro. Deitu 655 73 97 92 telefono zenbakira.

**Zizurkil.** Pisu polit eta argitsua, bista ederrak: sukaldea, komuna, saloia, 2 gela eta estudioa. Trasteroarekin (15m<sup>2</sup>) eskaile- bidez komunikatua. 17m<sup>2</sup>-ko terraza. Egoera oso ona. Igozailua. Gas naturala. Merez du ikustea. 686 64 94 97.

## 102. EROSI

**Debagoiena.** Etxebizitza erosi-ko gendue Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasaten. Hiru logela edukitzea ezinbestekoa, baita igogailua ere. 200.000 euroraino. Partikularrak bakarrik hitz egingo dugu. Deitu 663 72 78 23 telefonora.

**Altsasu.** Apartamentu edo pisu txiki baten bila nabil. Deitu 660 33 23 63 telefonora eta Oiharenarengatik galdetu.

**Gernika-lumo.** Bikote bat gara eta Gernika-Lumon etxebizitza bila gabilta. Pisua alokatu edo erosi-ko gendue. 608 21 71 44.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Atxondo.** Pisua alokagai Atxondon. 659 84 21 71

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan Levante hondartzako lehenengo ilaran. Bi logela eta aparkaleku. 630 41 84 65

**Conil (Andaluzia).** Hiru apartamentu eder, hirurak garajearekin, alokagai Conilen (Cadizen). 653 73 34 57

**Elorrio.** Baserri bateko etxe berriztatua alokagai. Estreinatze-ko 3 logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna eta atarrea. 150 m<sup>2</sup> solairu bakarrean. Telefonoa: 699 84 62 19

## 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 615 79 27 56.

**Bergara.** Hiru logeladun etxebizitza errentan hartuko nuke urtebeterako. 629 33 26 34.

**Bergaran.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 699 09 46 26.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 609 38 86 47

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil, gutxienez bi logela izan behar-ko litzuke. Hori bai, hobe litzateke hirurok izatea. Deitu 636 80 87 68 telefonora.

**Bergara.** Familia batek etxebizitza errentan hartuko luke. 650 62 12 94 edo 943 08 22 60

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 699 09 46 26

**Donostia.** Pertsona batentzat lbaeta. Igarra, Lorea, Berio, Igel- dingo inguruetan pisua, duplex-a, apartamentua... errentan hartuko nuke. Lan oso egonkorra dut. 686 65 97 20.

**Durango.** Alokatzeko hiru logelako pisu bila gabilta durango. 690 20 85 49

## 105. ETXEAK OSATU

**Abadiño.** Pisua konpartitzeko pertsona behar da. Deitu 653 01 72 24 zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Lau logela eta bi bainugela ditu. Langileak bizi dira. Deitu 653 71 44 57 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Logela jantzita ematen da errentan, erdigunean. Internetarekin. Tehebista, hozkailua eta abar logelan bertan. 647 28 82 41 edo 943 79 74 13.

**Bergara.** Bi logelako apartamentuan, logela bat ematen dut errentan. 250 euro gastuak barne. 626 86 67 36.

**Bergara.** Bergara erdialdean bi gela ematen dira errentan. Bata txikia eta beste handixoa. 943 03 62 00 edo 649 63 23 24

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabilta. 610 31 02 61.

**Donostia.** Donostian Amara auzoan gela bat alokatzen da neska batentzat pisu konpartitua batean. Berdin ikasle edo langile. 943 65 16 92, hartu ezean mezua utzi.

**Durango.** Gela bat alokagai Durangon. 630 76 18 28

**Durango.** Konpartitzeko pisu bila nabil Durango inguruan. 691 35 40 31

**Durango.** Zonalde onean kokatutako pisua osatzeko pertsona behar da. 695 78 09 44

**Etxarri Aranatz.** Etxarri Aranatz alokairuan bizitzeko logela edo pisu baten bila nabil. Deitu 679 76 32 34 telefonora.

**Oñati.** Logela ematen da errentan. 688 61 57 79

**Zarautz.** Zarautzen pisua konpartitu nahiko lukeen 32 urteko mutila naiz; hortaz, bai pisukide (neska zein mutil) eta bai pisu bila nabil. Interesaturik bazaudete idatzi [zarautz@euskalerialia.org](mailto:zarautz@euskalerialia.org) helbidera.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** 18 metro koadroko garaje itxia salgai. 685 73 58 55

**Durango.** Garaje itxia salgai. Alde Zaharretik gertu. 665 72 99 36

**Getaria.** Garajea salgai Balentziaga etorbideko 3 zenbakian, bajua. 37 m<sup>2</sup> ditu, ura, argia eta komuna ditu. Bi kotxerentzako tokiak dauka. 943 83 46 31

## 202. ERRENTAN EMAN

**Donostia.** Garajea alokairuan, Donostiako Gros auzoko San Inazio elizaren eta hondartzaren artean. 670 26 02 51.

**Durango.** Garaje plaza bat alokagai Azoka plazaren ondoan. 619 18 77 99

## 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje bat hartuko nuke errentan Bolu auzoan. 658 73 35 96

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Lorentzen. 665 73 51 59

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Bulego bat alokagai Plateruen plazan. 37 m<sup>2</sup> ditu, etajantzita dago. Dena prestatuta. Gela handi bat eta beste

bi normalak. 750 euro hilean. 656 78 02 15

**Iurreta.** Lonja bat alokatzen dut Iurretan, Maspe Kalean. 60 metro karratu ditu. 696 63 78 12 (Miren)

## 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Lokala hartuko nuke errentan. 250 euro ordaintzeko gertu nago. 943 53 29 18

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Abadiño.** Matienako mutil euskalduna goizetan (nahi den ordutik 11:00ak arte) umeak eskolara eramane edo tabernaren batean lan egiteko prest. Telefono zenbakia: 629 55 15 87

**Arrasate edo Bergara.** Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatueta eta pintxoetan. 637 18 07 23.

**Arrasate edo Bergara.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23.

**Arrasate.** Emakume serio eta arduratsua gertu orduka garbiketako edo jatekietan plantan zein sukalde laguntzaile jarduteko. 647 16 40 49

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu 15:00etatik aurrera garbitasun zein plantxa lan egiteko edo nagusiak zaintzeko. 699 54 17 27

**Arrasate.** Hemengo neska etxeko lanak, umeak zaintzeko edo edozein lanerako prest. orduka ere bai 659 55 27 16

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduna bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arrasalde haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606 42 64 14

**Bergara.** Asteburuetan edozein lan egiteko gertu. 654 98 69 14

**Bergara.** Neska gertu goizetan etxeko lanak egiteko. Deitu 656 73 64 51 telefonora.

**Bergara.** Neska euskalduna gertu goizetan umeak zaintzeko. Astelehentik eguenera 11:30ak arte eta egubakoitzetan 13:00ak arte. Irakaslea naiz. Deitu 650 27 75 82 telefonora.

**Bergara.** Neska bergarra etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 28 12 edo 943 76 29 52

**Bergara.** Pertsona nagusiak edo umeak zainduko nitzuke; etxean bertan bizi izaten. Deitu 679 09 25 31 telefonora.

**Bergara.** Garbiketarako eta pertsona edadetueng zaintza lanerako gertu egongo nintzateke. Orduka egingo nuke, eta etxe barruan lan egiteko ez dut arazorik. 686 76 22 96

**Bergara.** Asteburuetan edozein lan egiteko gertu 654 98 69 14

**Bergara.** Astebukaeratan lan egingo nuke Bergaran edo inguruan. Nagusiak zaintzen eta garbitasun lanak. 699 09 46 26.

**Bergara.** Neska gertu goizetan etxeko lanak egiteko. 656 73 64 51.

**Debagoiena.** 50 urteko neska eskoriatzarra, euskalduna, gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo elkarrekin-eta garbitzeko. Egun osorako prest. 607 68 58 76.

**Debagoiena.** Aste bukaeratan lan egingo nuke Bergaran edo inguruan. Nagusiak zaintzen eta garbitasun lanak egiten. 699 09 46 26.

**Debagoiena.** Debagoieneko neska lanerako prest. Etxeko lanak egin eta umeak zainduko litzuke. Yoana. 637 18 07 23.

**Debagoiena.** Emakume gertu garbitasun lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. 691 03 25 02.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, bertan bizi izateko edo kanpoko langile gisa. 689 88 97 66.

**Debagoiena.** Mutila gertu margolaritzan, eraikuntzan edo tabernan lan egiteko. 697 88 35 62.

**Debagoiena.** Sei urteko esperientziadun dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanerako ere gertu nengoke. 638 89 98 60.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatueta eta pintxoetan. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakume gertu ospitalean dauden gaixo zein nagusi edo umeak zaintzeko. Deitu gauetan, mesedez 943 71 46 24 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulazioa dauka. Esperientziarekin eta informenekin. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakume arduratsua esperientziadun eta informekin gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Zerbitzari lan egiteko prest. Esperientziarekin eta titularekin. Deitu 671 35 22 60 telefonora.

**Debagoiena.** 35 urteko mutil brasildarra, legezko dokumentuekin, gertu nagusiak zaintzeko. Geriatría ikastaroa egin dut eta esperientziadun dut. 634 85 69 78.

**Debagoiena.** Emakume gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientziadunak. Deitu 689 88 97 66 zenbakira.

**Debagoiena.** Arrasaten edo Bergaran umeak zainduko nitzuke, esperientziaduna. 696 84 19 51.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nitzuke orduka, egun oso zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak daukat. 663 65 78 43

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu tabernan lan egiteko edo garbiketa lanak egiteko. Christian engandik galdetu. 662 08 22 03

**Debagoiena.** Emakume gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Egun erdiz zein etxean bertan bizi izanda. Deitu 626 78 22 95 zenbakira

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume gertu sukaldari laguntzaile lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. 697 93 73 32

**Debagoiena.** Lantxoak egiteko eskaintzen naiz: elektrizitatea, margotu, iturgintza eta abar. Gorkagatik galdetu. Deitu 692 26 27 69 zenbakira.

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Emakume gaztea erizain laguntzaile bezala lan egiteko gertu. Deitu 943 76 52 34 edo 677 09 72 68 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetueng zainketarako edo atari garbiketako lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666 08 58 49

**Debagoiena.** Neska lanerako prest. Etxeko lanak egin eta umeak zainduko litzuke. Yoana. 637 18 07 23



INMOBILIARIA

**Ibarra 3 • BERGARA**  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### Bergara:

- Aranerrea 85 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Elusu baserrira. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m<sup>2</sup>. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m<sup>2</sup>. Oso ondo
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Masterreka. 46 m<sup>2</sup>. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Ganbararekin.
- Osintxu 64 m

**Debagoiena.** Mutil gaztea mendian lan egin edo banatzaile lanak egiteko gertu. 606 78 35 94.

**Debagoiena.** Mutil brasildarra, 35 urtekoa, sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbitzaile lanetarako gertu. Zerbitzari laguntzaile ikastaroa egin du Gamarako ostalaritza eskolan. Deitu 945 56 27 80 edo 634 85 69 78 telefono zenbakietara.

**Donostia.** Haurrekin esperientzia handiko pertsona haurrak zaintzeko prest. Magisteritzan diplomatu eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatu. 628 04 15 26

**Durango.** Neska euskalduna astean zehar garbiketa lanak egiteko prest; etxeak, tabernak... garbitzeko. Koxea daukat. Deitu 664 14 69 04 edo 647 24 23 01 zenbakietara.

**Durango.** Neska euskalduna Durangaldean lan egiteko prest; umeak zaintzen, dendan... Telefonoa: 649 27 45 43 (Nagore)

**Durango.** Emakume bat, interna moduan, egun osoz edo egun erdiz etxeko lanak egin eta gai-oxak zaintzeko prest. Interesatuak deitu: 635 75 76 71.

**Durango.** Emakume nagusia pertsona edadetuak zaintzeko prest. Deitu 699 74 57 23 zenbakira eta galdetu Inesengatik.

**Durango.** Haur Hezkuntza ikasten ari den neska euskaldun gaztea umeak zaintzeko prest (koxea daukat). 626 19 68 85

**Durangaldea.** Mutil bat asteburuetan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. 678 31 35 03

**Durangaldea.** Emakume arduratsua orduka lan egiteko prest dago: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta antzekoetarako. Telefonoa: 670 67 46 41

**Elorrio.** Haur Hezkuntza ikasten ari den 20 urteko Elorrioko neska euskalduna arratsaldeetan umeak zaintzeko prest. 615 71 58 78

**Elorrio.** Elorrioko neska euskaldun eta arduratsua, goizetan 11:00etara bitartean umeak eskolara eramane edo zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia handikoa. 645 72 34 01

**Ordizia.** Esperientziadun 28 urteko neska euskaldun eta arduratsua gustora lan egingo luke etxeko lanean Goierrin (Ordizian, Beasainen, Itsasondon, Lazkao...). 660 02 85 52

**Oñati.** Neska euskaldun oñatiarra haurrak eta etxeko gauzak egiteko prest. Arduratsua. 618 09 47 87

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. 635 70 07 92.

**Orexa.** Eskualdeko emakumea, goizez etxeko lanak egiteko prest dago. 600 71 64 76

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako, asteburuetan ere lan egiteko prest edozein lan: jardineria, mahastietan eta abar. 658 73 08 08

**5/ IRAKASKUNTZA**  
**502. EMAN**

**Bergara.** Kimikan lizentziadun batek matematika, fisika eta kimikako eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. 648 06 79 85.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditu. Elkarriketa lantzeko ere bai. 654 94 87 26

**Durangaldea.** Magisteritza egiten ari den pertsona behar da eskolaz kanpoko partikularrak emateko, DBH lehen hezkuntza. Telefonoa: 94 658 46 73

**Durangaldea.** Matematika irakaslea behar da etxean klase partikularrak emateko. 3. DBH. Telefonoa: 605 76 72 58

**Debagoiena.** Eskola partikularrak Irakasle ikasketak dituen neska, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleei eskola partikularrak emateko gertu. 655 71 39 27

**Beasain.** EGAKo azterketarako zein beste hizkuntza eskakizunetako azterketetarako jendea prestatzen du. Euskararen irakaskuntzan esperientzia du. Euskaltzaindik irakaslea naiz. Gipuzkoan barrena mugitzeko prest naiz. Interesatuak, deitu telefono honetara: 645 71 85 78

**Donostia.** Heziketa Berezian diplomatu eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatu klase partikularrak emateko prest dago Donostian. Interesatuak, deitu telefono honetara: 628 04 15 26

**Elorrio.** Ekonomian lizentziaduna eta 8 urteko esperientziadun neska euskaldun klase partikularrak ematen ditu: DBH, Batxilergoa, LH... Telefonoa: 616 80 29 32 (Oihane)

**Oñati.** Esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu edo etxeko lanak egin lagunduz. 6-12 urte bitartean. Arratsalde edo gauean deitu. Interesatuak, deitu telefono honetara: 651 70 85 13

**Villabona.** Ingelesko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituladuna. 664 16 02 68 eta *continental56@hotmail.com*.

**6/ MOTORRA**  
**601. SALDU**

**Honda Vradero 1000 motorra salgai.** 2006koa. 23.000 km. Egoera oso onean. Errebisioak eguneratuak. Extrak: hiru maleta, eskumuturrak berotzeko, defentsak, depositoa babesteko eta abar. Interesatuak, deitu telefono honetara: 605 71 24 73

**Mitsubishi Montero luzea salgai.** Harremanetarako deitu ondorengo telefono zenbaki honetara 625 70 79 94 eta Xabierengatik galdetu.

**Nissan Micra automatikoa salgai.** Gidatzen erraza. Ia berria. 45.000 km. Interesatuak, deitu telefono honetara: 649 19 64 04

**Nissan Micra salgai.** Egoera onean eta oso merke. 950 euro. Interesatuak, deitu telefono honetara: 600 71 64 76

**Opel Vectra 1.800 16 V autoa salgai.** Mendeurrenekoa. Ekipamendu osoa eta bola. 170.000 km. 2000koa. Gomentatzeko modukoa. 2.200 euro. Interesatuak, deitu telefono honetara: 662 02 92 78.

**Peugeot 307 1.6 gasolina salgai.** 2005eko azarokoa, 36.000 km. IAT 2011 arte. Klimatizagailuekin eta oso egoera onean. Garajejan gordetakoa. 8.000 euro. Interesatuak, deitu telefono honetara: 677 333167 eta Iratxerengatik galdetu.

**Kawasaki Z750 salgai.** Kawasaki Z750 salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 km, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. 660 33 77 16.

**602. EROSI**  
**125 cc-ko motorra.** Erabiltzen ez duzun 125cc-ko motor hori erosiko nizuke. Interesatuak, deitu telefono honetara: 647 31 64 41.

**7/ ANIMALIAK**  
**701. SALDU**

**Akerra salgai.** 5 urteko akerra salgai. 627 637 536

**Esneko arkumeak saltzen dira,** hilabeteokoa, baserriak zuzenean. Debagoienean. Deitu 687 06 04 34 zenbakira.

**Etxeko oilaskoak saltzen dira.** 23 kilokoak. Zuriak 5 euro kiloak, eta gorriak 6. 655 99 84 02

**Txakurkumeak salgai.** Euskal artzai txakurkumeak daude salgai. 2 hilabete betetzeko daukate. 645 70 91 38 (Enrike)

**Txakurkumeak salgai.** Txakurkumeak salgai. Bost pitbull. 200 euro bakoitza (Negoziazgarri). 677 85 05 85

**Txakurra salgai.** Mastin arrazakoa. Gaztea. 943 79 62 63

**Zaldi hispaniar arabiarra salgai.** Monturakoa. 7 urte. Zuria. 616 00 34 29

**703. EMAN**

**Arratoi txakurra oparitzen da.** Hiru hilabete ditu. Arra. Beltza. 686 07 61 60

**Txakurkumeak ematen dira opari.** Setter eta Border Collie arteko gurutzaketa. Hiru hilabeteokoa. Txertoak ipinita daukate. Debagoienean. 619 28 32 06.

**704. BESTELAKOAK**

**Bergara.** Bost hilabeteko txakurra galdu nuen orain dela hiru aste. Mikrotxipa du eta 'Tekel' du izena. 150 eurorekin sarituko du. 651 70 72 40

**Katua topatu dogu Elorrian.** Zuria eta marroi argi kolorekoa. Zurea bada, deitu. 615 76 42 73

**Txakurra aurkitu da Bergaran.** Txakur txikitxo aurkitu du Bergarako Bolu kalean. Emea. 620 61 91 34

**Txakurra Dorraon.** Yorkshire arrazako txakur bat aurkitu zen larunbat gauean (otsailak 27) Dorrao inguruan. 659 15 97 24.

**8/ DENETARIK**  
**801. SALDU**

**Akordeioa salgai.** Parrot etxeko teklitako akordeioa bere kaxarekin salgai. 96 baju ditu. Oso prezio onean. Deitu 669 27 35 49ra.

**Argazki kamera.** Argazki kamera ia berria salgai. Lumix FZ18, bi baterria eta zorroa. Prezioa adosteko aukera. 615 70 77 10

**Bergara.** Angiozarren 1.500 metro koadroko lursaila salgai. Eraikitzeko baimena duena. Bi bizitzako etxea egiteko. 180.000 euro. Interesatuak, deitu telefono honetara: 647 51 52 54

**Bikientzako aukia.** McLaren markako aukia. 2007koa. Interesatuak, deitu telefono honetara: 655 74 22 41

**Boxeorako.** Boxeorako zaku salgai. Interesatuak, deitu telefono honetara: 638 89 78 76

**CDak salgai.** 70eko hamarkadatik 2000. urtera artekoak: rocka, popa, bluesa, reggaea, eta abar. CD bat: 2 eurotan; Bost CD edo gehiago: euro bat bakoitza. Interesatuak, deitu telefono honetara: 606 26 62 44. Luisma.

**DVD erreproduzitzaile unibertsaia,** Best Buy LTD sintonizatzaile eta guzti. USB bidez telebista grabatu eta multimedia edukia ikus daitezke. Erabili gabea. 40 euro (dendan 60 euro). Easy Home Combo Rec markakoa. Deitu 659 55 27 16 telefono zenbakira.

**Egongelarako altzaria salgai.** Egoera oso onean. Luzera 3,34 m, altuera 2,20 m eta zabaleria 40 cm. Interesatuak, deitu telefono honetara: 685 76 95 03

**Ereño.** Lur sail eraikigarria salgai Urdaibain Ereño inguruan 3.000 metro koadro inguru. Deitu telefono honetara 619 02 75 38 19:00etatik aurrera.

**Estufa katalitiko salgai.** Venus etxeko estufa katalitiko saltzen du. Urtebete dauka eta ia erabili gabe dago. 50 euro. Deitu Interesatuak, deitu telefono honetara: 669 27 35 49ra.

**Esakiak salgai.** Dynastar Vitesse etxekoak. Look fijazioekin, 1,85 m neurrikoak: 60 euro. Eta Rossignol etxekoak, Rossignol fijazioekin, 1,78 m neurrikoak: 60 euro. Eskiatzen hasteko oso aproposak. 690 83 98 53

